

EUSKAL LITERATURAREN ORAINAZ ETA GEROAZ

J. Azurmendi

Ohar batzuk bakarrik, gai berez haundiegi baten inguruan.

I.—Arazoaren sentidoa, oinarriak, zabaleroa

Eta lehenengo, nondik hasi, gaiari nondik heldu:

- 1. Gehienok politika aipatuz hasiko ginatke: euskal letrentzat frankismoa izan den trajeria, etab. Orain zer dagoen. Eta zer dagoen egin beharra. Euskal literaturaren etorkizunaz hitzegiterakoan, lehenengo iraganaldi faxista aipatuz hasi beharra dagoela, ematen du. Kasi itual bat bihurtu da.
- 2. 1951ean L. Mitxelenak euskal literaturaren etorkizunaz saio sonatu bat argitara zuen. Gerra ondoko literaturaren hastapenak ziren orduan. Eta L. Mitxelenak hasiera harrigarri honekin abiatu zuen bere saioa: gizatasunaren galderarekin eta gizonak bere buruari gizona zer den galdetzearekin. Zer den gizona: itxuraz, behintzat, literatura-ekin baino zerikusi gehiago duela, ematen bait du, edozein filosofia-ekin.

Eta halaxe da: euskal literaturaren aurretik, filosofia bat, gizalerge bat eta etika bat, daudela, erakutsi nahi zigun Mitxelenak. Oinarri gainean bakarrik konpreni daitekeela euskal literaturaren fenomenoa.

51tik honera, gauzak dexente aldatu dira hogeiei eta zortzi urte honetan euskal literaturan ere. Ikustea dago 51ean nolako planteamendua egiten zen eta nolakoak egiten diren orain.

Gero, hurrengo urteotan, euskal literatura zertan den eta nora doan, begira ibili garen gehienok (San Martin, Sarasola, Lete, Lertxundi; ni neu, permititzen badidazue) Mitxelenari jarraiki ibili gara, ondo ala gaizki. Azken urteotan, ordea, hauzitan dabilta euskal literatura ikusteko moldeok. Protestak gogor altxatu dira. *Ustela* eta *Pott* eta horien aldetik, esate baterako. Eta, hain zuzen, literaturaren kriterio sozial, edo politiko, edo filosofiko faltso batzuk salatu na-

hiez, altxatu dira protestak. Literaturaren beste ikusmolde batzuk esijitzen dituzte. «Literariak» edo.

«Literatura» konzeptuaren inguruan

Beraz, badu bere inportantzia, euskal literaturaren etorkizunaz hitzegiten hasi eta nola hasteak. Euskal literatura zer den, zer ari den, interes eta konzeptuen testinguru zehatz batetan egiten da galdera: situazio konkretu batetan, kondizio jakin batzuen artean. Galderak badu bere sentido espazio zehatza. Errealitate mugatu eta jakin bati erreferitzen zaio, kultur eremuan batipat, baina historiarekiko erreferentzian ere bai. Eta errealitate konkretu hori, bere erlazio mundu guztiarekin, batek modu batetan eta besteak bestetan mugatuko eta ulertuko ditu.

Alegia, literatura zer den, guk *nahi* dugunaren heinean soil planteatzen badugu, ezinbestekoa izango da, interes diferentzien arabera literatur konzeptuak ere sentido diferentea hartzea. Beraz, literatura zer den, edo literaturak zer izan behar duen, perspektiba eta modu diferentetan har daiteke. Norbaitek esan dezake, literatura beti literatura dela, hemen hala Txinan, eta literatura, literatura bezala soil ikusi behar dela, eta kito, eta uzteko beste kontsiderazioak («extraliterariak», esan ohi denez). Hori, esango nuke nik, egia da. Baina egia hori, kasu honetan, batere interesatzen ez duen egia da, niretzat bederen, mundu honetako beste egia eder askoren moduan. Postura hori, oso garbia dirudiena, ez bait da oso iluna besterik: alegia, bere premisa «extraliterariak» ezkutatu bakarrik egiten dituena, besteak beste errazago ukatzeko. Euskal literaturaz badihardugu, literaturaz dihardugula ta, ezin ahantz genezake adjetiboa: eta *euskal* horrek ez du hizkuntza bakarrik adierazten, zeinetan espresatzen den literatura hau, baina gure egoera guztia. Gure egoera ahaztu eta (gure) literaturaz edonola hitzegiteak ez dauka sentidorik.

Honek denak oso abstraktua dirudi eta hitzaldi honetarako beharbada inportantzia haundirik ere ez dauka. Baina, gure eztabaida batzuetan, nahastuta premisaotxek dauzkagula uste dut, handik sortzen dira gero komeriak.

Bistan da, literaturaren konzeptu desberdinak aurkitzen ditugu *Pott* eta *Ustela* horietan eta, esate baterako, S. Onaindiaren *Historian*.

Beraz, definizio absolutuak alde bat utzi ta, *literatura* konzeptuak, gure situazioan, sentido berezi bat baduela, uste dut, zabala samarra, beharbada anbigua, baina ezinbestekoa, gure errealitatea nolabait atzeman nahi badugu: h.d., gure kontsiderazioetan konzeptu

tuaren aurretik errealitatea ikusten badugu; konzeptuekin errealitatea zer den, ez gure ustez zer behar lukeen, agertu nahi badugu; konzeptuak ez baditugu definizio prezeptiboak bihurtu nahi errealitatearentzat. Euskal literaturaren azterzaleok ere errealitateari begira ibili beharra bait daukagu, gure errealitateari, konzeptuei eta nolabaiteko esentziei begira ibiltzea pozgarriago balitzaigu ere. Bestela denok dakigu eta denok ikusten dugu, bere literatur konzeptua Ingalaterrako errealitatearekin konfrontatuz edo mugatu duen batek, esaterako, euskal literatura estudiatzen hasi, eta anbiguitate askotxo aurkituko ligukeela. Baina, azkenean, gure kasuan, anbiguitatez beteta lehen-lehenik dagoena, errealitatea bera da, ez literaturaren konzeptua. Eta berdin beste nonahi: apenas pentsa genezake, beste edonongo errealitateek eta konzeptuek funtsean anbiguitate gutxiago dutenik berez, ohitura eta konbentzio sozial batzuei eskerrak akademikoki inposatutakoak badaude ere.

Alde batetik Onaindiaren estremoak dago. Baina, bestetik, ez diot ikusten burubiderik, hartu kriterioak Frantziako edo Espainiako edo ez dakit nongo literaturakoak (eta historia modernoetatik, horietan ere), edo joera modernistaren batetako kriterioak, eta kupida gabe jorra vandaliko bat egiteari euskal literaturan. Ikusia bait dugu, esate baterako, nola *Gero* bera obra ez literarizat jo izan den, hola-ko kriterio zorrotzen batzuekin. Zer geratzen zaigu orduan, *Peru Abarka* ere enziklopedia bat baldin bada, ez literatura? Euskal literatura gehiena, ia dena, deklaratu nahi izan da desliteratura.

Eta, nahi baduzu, izan ere halaxe izango da, ez dakit beste zein literaturari konparatuta. Baina dagoena dago. Protesta batzuek ez dute historia desegin eta berregingo.

GORABEHERA polemikoak bihurtu dira guztiok. Literaturaren konzeptu herstuago bat eskatzen da; kritika seniorik ez dagoela, protestatzen da, etc. Etorri, aspaldi samarretik dator mogimendu hau, baina orain benetan indartuz doala, ematen du. Mogimendu oso positiboa, dudarik gabe, euskal literaturari eman diezaiokeen bultzadagatik. Alabaina, erreakzio honi bere aldea ukatu gabe —batez ere dinamika baten, gogo baten, eta beharbada posibilitate berrien, espresio bezala erakusten duen parte—, hain zuzen kritika serio batek, euskaraz zer produzitu den eta produzitzen den, begiratu beharko du, eta zergatik den holakoxea euskal produkzio literaria. Badakigu, bai, nolakoa izan den mendez mende. Orain beste zerbait nahi dugu. Halare, nahi badugu eta ez badugu, horrixe esan beharko diogu «euskal literatura». Zeri bestela? «Euskara» ere gure euskara honi esaten diogu, ez dagoen-dagoen horretan gehiegi gustatzen zaigulako. Mendez men-

de egon den produkzioak, eta egon den haren azterketak eta kritikak, erabaki digute, hein batetan bederen, guk ere zeri eman euskal literaturaren izena, gutxienez errealitate berriek besterik permititu arte. Tradizioa kanonizatu nahi ez badugu ere, bada, ikusmolde tradizionalok oraingoz beren zuzentasuna dutela, esan genezake, hoberik asmatu arte.

Eta, beraz, alde aurretik eta hasieratik aitortuko dut, funtsean orain arte bezalako, Mitxelenak eta irakatsi zizkiguten ikusmolde haiekin geratzen naizela, handik eta hemendik altxatu diren, neuk ere izan ditudan, protestak eta kritikak gorabehera.

Gizatasun eta politika arazo bat

Hizkuntza madarikatua da euskara. Gerra, harmek adinatsu, euskarak galdu zuen. Eta euskal literaturak. Diktaturak, inor edo ezer zanpatu, desterratu, gartzelaratu, torturatu, afusilatu baldin bada, euskal literatura eta euskara izan dira, zoritxarrez euskara eta euskal literatura torturatuzera bakarrik mugatu ez bada ere.

Baina Franco hil zen —Jaungoibruak eduki beza bere zernuan— eta gauzak ez dira asko aldatu euskal literaturarentzat.

Arrazoi oso sinpleak ditu, aurrenik beti testuiguru politikoa aipatu nahi honek, eta ez psikologikoak bakarrik. Xehetasunik ez dugu agian behar, oraindik denon gogoetan bait daude egunotakoxe istiluak Konstituzioko Aintzin Tituluko 3. artikulua inguruan («Gaztelania da Espainiako Estatuko hizkuntza ofiziala», etab.); Kontseilu Orokarreko haiziak halaber elebitasunari buruz; baina baita Euskaltzaindiaren autoritateaz ere. Eta etorkizun politikoari loturik ageri zaizkigu ikastolaren etorkizuna, euskal Unibertsitatearen etorkizuna, etab., irratia, telebista, zinema, ez aipatzeko. Euskararen etorkizuna.

Euskararen etorkizuna esaten denean, ez da ulertu behar, euskara biziko ote den ala hilgo ote zaigun bakarrik. Hiltzen bada, euskal literaturaren problemarik ez dugu izango: eta hori, euskal literaturak berak kontuan eduki beharko duen arazoa da. Horra euskal literaturaren lehenengo berezitasun bat. Eman dezagun, halare, biziko dela, bizi, euskara. Baina bizitzetik bizitzera, libertatetik reserbazioetara, nekazarien hizkuntza batetatik hizkuntza moderno batetara, alde dago eta alde hortantxe da, literaturaren orain eta geroaren arazok non duen bere lekua, textuinguru sozialean eta politikoan. Imajinatu ezinezkoa genuke, hizkuntza, alde batetik, agonian ibiltzea eta bestetik literatura, alai eta sendo, kontrapas dantzan.

Imajina litekeena, hizkuntza agonian ibili arren, obra literari aparten bat sortzea da, obra horren berezko balioa, hizkuntzaren egoera aparte, begiramen guztia mereziko lukeen asuntoa bait litzateke. Baina hori beste problema bat da. Edozein humanistak idatz zitzakeen XV.gn mendean poema ederrak greko klasikoan: baina «literatura grekoa» esango al diogu horri? Agian obra literari batzuk egotea eta literatura bat egotea nolana beri dintzerik ez dago.

Euskarak, orain arte bezala, marjinazioan bizitzen jarraitu behar baldin bada, esate baterako, euskal literaturak ere marjinazioan eta marjinaziotik sortua izaten jarraituko du. Eta marjinazioan, euskara, ez dauka Estatuak bakarrik, edo Elizak bakarrik, ezpada baita Alderdi abertzaleek berek, euskaltzaleek berek, geure ohiturek, inertzia, nagikeriak, analfabetismoak, munduan dugun presak eta erraztasun beharrak, euskararen beraren ttipitasunak eta desarroilo faltak, etab. ere. Ez da Franco izan, euskara marjinaziora kondentatu zigun lehenengoa: kontu zaharra da.

Zein ondorio aterako dugu hortik? Atera beharko litzatekeen ugaritatik orain konklusio sinple hauxe aterako dugu: hipotesi batean, egin liteke euskaraz obra ditzirante bat, *Quijote* eta *Faust* eta *Biblia* bera kaskar uzten dituen; eta, halare, euskal literaturak marjinazioan jarraituko luke. Literatura bat ez bait da *Mistral* batekin egin. Obra batek, edo hamarrek, marjinazioa haustea, ez da euskal literaturak marjinazioa haustea. Eta orain ez dut hizkuntza ttipien marjinazioa munduan esan nahi, Euskal Herri barneko marjinazioa baino: Euskal Herrian bertan literaturak sofritzen duen marjinazioa (Lasagabasterrek egunotan seinatu diguna, *Egin*-en: «la literatura en euskara, hermana pobre de la cultura vasca»). Beraz, gure problema, euskal literaturaren problema, obren batzuetan lor daitekeen perfekzio literariarena baino sakonagoa da. Gure asmoa, obra haundiren batzuk, edo kreaio guztiz modernoren batzuk, sinbolo modura, edukitzea baino gehiago baldin bada behintzat... Izan ere, badakigu nola denbora batetan, euskara, «abizen» garbiak bezala, txapela eramatea bezala, fededun zintzo izatea bezala, inspirazio politiko eta sozial baten sinboloago zela, zinezko errealitate espresiorik baino. Eta, textuinguru hortan, obra literari nagusi batzuk ere esijitzen ziren, sinbolo politiko-literari gisa. Orain arriskua dago, nik uste, justu arrazoi kontrarioengatik, literaturaren planteamendu antipolitikoengatik hain zuzen, baina fenomeno berberera itzultzeko: literatur produkzio guztiaren planteamendu bat gabe ibiltzearen, kalitatea, literaturtasun hutsa, modernotasuna, eskatuz, eta kalitatezko literatura moderno hutsa eginez egindako obrek, azkenean, gure literatur

produkzioaren konjuntorekin beste zerikusirik ez izatea, sinbolo prestijioitsu batzuen baina. Ez da, Txinan edo Ingalaterran egon litezkeen antzeko esperimentuena, textuingurua, non lehenik ikusi eta estudiatu behar den *Sekulorun sekulotan*: euskal literaturaren konjuntorena da haren lehenengo textuingurua. Obra literari supermoderno batzuk edukitzeak ez du esan nahi literatura modernoa daukagunik.

Zer gertatzen da? Literatoak badauzkagu, inolako kontsiderazio politikoetara erreduzitzerik ez daudenak. Lizardi bat, Orixe bat, Lauaxeta, Loramendi, inspirazio politiko baten produktu soiltera bihurtu nahi ditzanak, oso murriztu beharko dizkigu Autore horiek. *Euskaldunak* poeman sinbolo politiko-sozial edo politiko-literari hutsa ikustea, oso gutxi ikustea da, poema bera ez ikustea batik bat. Baina beste problema, horietxena alegia, benetakoa da: obra esporadiko batzuk sortzen direla, Autoreren batzuk ahalegintzen direla, egiazko bokazio literariz, literatura egiten, baina obra horiek eta Autore horiek, airean galduta gelditzen direla, bakan, bakar, koherentzia bat bage bezala, bakoitza monada bat. Literatur puskak dauzkagula, ez konjuntio bat. Erdi Aroko ahoz-ahozko epikatik ez zaizkigu fragmento batzuk besterik gelditzen, itsasperatu zen kontinente baten uharte hondarrak. Eta badirudi gure literaturaren hastapenekin daukagun fenomeno hori arau eta norma bilakatu dela euskal literatura guztiarentzat edo gehien-gehienarentzat: fragmento literatura bat dela dena, kalitatezko meteoro batzuekin, literaturaren amorez beren burua sakrifikatzen duten Autore kamikaze batzuekin, edo *ex nihilo* sortua dirudien sorpresa pare batekin (Mitxelenak holatsu ikusten du Lizardi; Sarasolak Aresti). Honen probarik hoberena, egunotan berriro literaturaren borroka biztu duten horietxek berak dira, bestela ez ziren beren egoera dramatiko bezain komiko-paradokikoan aurkituko: literaturan literatura esijitu beharrean.

Orduan, literatura nahi dugunoi, literatura nahi dugulakoxe hain zuzen (eta ez, esate baterako, sinboloren batzuk, abertzale bezala harrotzeko edo literaturzale bezala satisfakzio pertsonal bat izateko), metodoaren problema planteatzen zaigu: zer behar dugun, nola iritsi behar dugun literatura normal eta koherente batetara.

Nik uste nuen, honela ulertutako literaturaren eta bestelako obra literari esporadiko haien artean ez zegoela alternatibarik, elkar osagarritasuna baina. Norbaitek besterik ikusi uste badu, ez naiz aklatzen zergatik. Beraz, ez dut eztabaida gogoia beste arrazoirik eztabaidarako ikusten: Balaanen astoarekin alferrik da diskutitzea.

Politikaren eta literaturaren artean beti dagoen teinka edo nahasketa hori, beti arriskuz betea, soluzio garbi batekin likidatzen da errazena: literatura kontsiderazio politikoen zeharo menpean ezarriz —a la Proletkult—, edo kontsiderazio politiko denak ostikatuz, literatura hutsarekin enplegatzeo. Betiko puristen eta puritanoen metodoak. Euskal Herrian, arrazoi askogatik, problema hori ere inmediateotasun biziago eta konplexitate bihurriagoz presentatzen bait zaigu, zelebrea ere bada nola gabiltzan. *Euskararen* arazoaz diharduten gehienek, planteamendu politikoen beharra hotsegin ohi dute: Krutwig, Txillardegi, etb.; euskal *literaturaz* diharduten gehienak: Villasante, Sarasola, etab., planteamendu politikoen mesfidantza haundiz ageri ohi dira. Halare denok ikusten dugu, arazo biok zenbateraino bat bera bihurtzen zaizkigun behin eta berriro. Xelebreagorik ere bada: Villasantek, aranismo edo purismoa kritikatu zuenean, hizkuntza kontuetan kriterio politikoekin ibiltzea kondentatzen zuen; geroxeago, ordea, nolabaiteko aranistak ziren, horixe berbera alderantziz egiten zutenak, eta Villasanteren aurka, euskara batua egiteko erabiltzen omen ziren kriterio eta interes politikoak salatuz...

Ekibokorik ez sortzeko, zer duda, hoberena ekibokoen gainetik dauden planteamoldeak eta posizioak hartzea da: literatura politikari zeharo menperatu edo eta kontsiderazio politikoei batere jaramonik ez egin. Baina errealitatea ekibokoa bada, zer egiten dugu, ekiboko gabeko planteamoldeekin? Hain alaiki errealitate tristea «superatu» zuen Ikarori, hegoak erre zitzaizkion.

Literatur kreazioarena ez da arazo politiko soila, dekretoz edo konpon daitekeena: baina euskal literaturaren arazoa nekez planteate daiteke kontsiderazio politikoak ere biltzen dituen planteamendu orokar batetan ezpada. Gure mundu honetan, «tentazio politikoaren» deabruari ihes egiten dion anakoreta literariak, munduari egiten dio ihes, berak jakingo du zein basamortu birjinaletara.

Gogoangarria, beraz, Mitxelenak euskal literaturaren etorkizuna nola planteatu zuen, planteamendu politiko eta sozial bat politikan zuzenki sartu gabe eginenez, h.d., literaturaren determinismo politiko sinplista batetan erori gabe. «Gizona gizon denez gero, zer den galdezka ari da», —hasten zituen bere gogoetak. Eta «bere baitan eta beretzat adina besterengan eta besterentzat bizi behar du gizonak» konklusiora iritsiz, literaturaren bokazio soziala, literatoaren bokazio etikoa, euskal literaturaren etorkizunari buruzko planteamenduaren oinarri bihurtzen zituen.

Literatura ala/eta obra literariak:
Euskarak ez du kodigo literari eginik

Literaturaren eginkizun soziala, literatoaren bokazio etikoa: entzun orduko zenbait literaturzale erne eta errezelati jarriko duten espresioak. Arrazoiarekin. Literaturaren gorabeheretan politika, gizatasuna, etika, aipatzeak, susmo eta oroimen gaizto asko iratzarten bait du. Lehenago ere pedagogismoa kritikatur gaude, literatur eta kultur teorien batzuetan. Eta ez gara harritzen, berriz ere eskola zahar hala berriko pedagogismoen beldur izatea zenbait jende literaturzaleen artean.

Erraza da, orduan, literatura garbiaren posizio batetatik, literaturaz iharduterakoan nola-halako kontsiderazio politikoak edo sozialak egin izan ohi ditugunok ridikulizatzea eta burla egitea. Bestalde, zahar samarra ere bada, burla horiek ez gaituzte sorpresaz harapatzen. Guk literaturaren plan kinkenat bat nahi omen genuke, etab.; kontsumo literatura alienatzailea nahi omen dugu: erdaraz kondentzen duguna euskaraz txalotuz, etc. Duda gabe, gu oraindik ohartu gabe gaudelako, beste mutiko listo horiek laster ohartu diren bezala, literatur produkzioa ez dela lukainka produkzioa. Eta, deskuidatzen bazara, tontoz gainera faxistatztat joko zaituzte.

Badirudi, beraz, orain, literaturaren arazoa marko sozial eta politikoetan planteatu nahia legitimatu egin beharra dagoela, oraindik urte asko ez bada ere, literaturaren arazoa politika hutsetara —abertzaletasunera edo klase interesetara— bihurtzearen aurka saiatu beharrean ibili garela. Irauli egin zaizkigu ikuspideak: literaturari abertzaletasun planteamoldeak edo klase planteamoldeak erabat inposatetik, ikuspide horiek zeharo arbuiatzera jo dugu, ekilibrioaren gure zentzu klasikoari zegokionez.

Aspaldi samar aztertu eta kritikatu genuen, nola, literaturari, Estatua egiteko, edo gizarte berria eraikitzeo, etc. helburuak ezartzeak, berehalaxe literaturari uko eginez bukatzen duen, errealismo sozialistan nahiz errealismo faxistan, klase borrokaren teologian nahiz kristau salbazioaren zientzian, stalinismoan bezalatsu platonismoan. Literatura lehenengo literatura da, ez harma sekretoren bat politikoaren instrumentarioan. Beraz, ezinbestezkoak baino ekiboko gehiago ez uzteko, esan dezagun garbi, literaturari, Estatu sozialistari edo gizartean moralitasun kristaurik eraikitzeo bezain gutxi inposatu nahi diogula, euskara salbatzeo edo eginkizunik, literaturaren kondizio bezala; ez da literaturaren eginkizunik Euskadi askatzea, nazioa berregitea edo klase borroka irabaztea ere.

Hori ondo gauza simplea da. Baina gure problemak hain simpleak izan balira, guk ere agian asmatu izango genuen, habilagoak etorri arte itxaron gabe, soluzioren bat, honez gero: ez gure mainak eta ez gure asmoak aski zorrotzak badira ere, orapiloa, beste horiek bezala, ezpatazo batekin mozteko.

Oso problema konplexoa eta delikatua iruditzen zait, halare, euskal literaturarena. Zirt ala zart ibiliaz ez dirudi ezer irabazten denik, barruko asaldapenaren hustualdi pribatu gozo batzuk besterik. Euskal literaturak ez du adibidez, euskara salbatu beharko —literatura da, euskal literaturak ere salbatu beharko duena—, baina, egon, euskara salbatzen dugun, ez dugun, situazioan gaude eta literaturak ere, nahi badu, ez badu, situazio hortantxe dauka bere sorlekua, situazio nahiko berezia bait da literatura egiteko. Euskara salbatzearen problema, berriro esan beharra dago, ez dugu modu sinplista batetan ulertzen, politiko soilean esate baterako. Besteak beste, ordea, esan nahi du, euskara motel dagoela, behar bezala desarroilatu gabe dagoela, eta literaturak hizkuntza murrizt horrekintxe operatu beharra daukala, norbaitek hizkuntza literari gisa euskarari falta zaiona edozein erdaramerdaraz aisa ordeztu lezakeela uste badu ere. Porru ostoa jantzi eta jantzita gaudela uste.

Idazleren batek —beti Orixeren kasua aipatzen da— bere euskararekin, bere literaturarako, holako problemarik ez erabiltzea, salbuespen bezala kontatu behar da; ez du esaten dugunaren kontrarioa probatzen, alderantziz baino.

De fakto daukagun euskararekin —ofizialtasunik gabe, etab.— eta de fakto daukagun idazleriarekin —euskal eskola gabe, euskarazko tradizio literari batetan hazia izan gabe, etab.— eta literatura moderno bat finkatzeko beharko genukeen guztiarekin, baina daukagun gutxiarekin, ezin pentsa genezake, voluntarismo hutsez edo lau tipo jenialen jenialtasunez konponduko ditugunik gauzak. Hor dauden problemak hainbeste dira, zenbat diren eta zeintzuk diren esatea ere problema zaila bait da. Euskaraz piska bat idatzi duenak, badauki hori. Euskara problema da. Euskal idazlea, mila problema elkarrekin gurutzatuen jungla batetan mogitzen da. Kritikoak, literaturzaleak, euskal literaturaren soziologoak, historigileak, kontuan hartu beharra daukate euskal egoeraren berezitasun hori, literatura ez bait dago guzti horrekin ikuskizunik gabe.

Arrozoiez esan da, eta literatura garbiaren zale horietxek azpimarkatzen dute berriro, euskal literaturan inportantzia gehiago eman behar zaiola bertsoaritzari. Literatura da, ez folklorea, eta euskal literaturaren berezitasun bat da. Literatura espainol edo frantze-

saren historietan ez dugu holakorik aurkituko: eta jeneralean haien arabera heziak eta ikasiak gara. Baina euskal literaturak badu berezitasun hori eta gure historietan egiten den baino gehiago begiratu beharko genioke, literatoek ere gehiago aprobetxatu beharko lukete. Konforme.

Euskarak oso bestelako «berezitasun» literariak ere baditu. Imagina ezinezkoa da, seguru asko, Madrilgo kritikak, Mezaliburuaren itzulpen bat gaztelaniara, obra literarizat kontsideratzea ere. Baina lehenago ere esan izan dut, niretzat, Orixeren Mezaliburu itzulpenak ongi merezi duela toki bat euskal literaturaren historian. Itzulpen batek? Mezaliburu batek? XX. mendean?... Bai, Leizarragari ematen zaion bezalaxe. Edo literatura alemanean Luterok bere lekua duen bezalaxe. Eta edozeinek daki, Biblia itzulpen bat gaur-egun nekez ailegatuko litzakeela literatura alemanaren historiara; apenas errazago izango da, ordea, Luterorena literatura alemanaren historiatik —beraz, literatura alemanetik— baztertzea. «Literatura» konzeptua ez da estatikoa, aldaezina, inkondizionala, edonon berdin balio duena, historiako momentu guztietan, akademizismo berri batzuek, beren egungo perspektibatik, holako zerbait eskatzen dutela, badirudi ere. Lehenengo, hizkuntzak eta hizkuntzaren historiak kondizionatua da. Baina historia sozialak, politikoak, filosofikoak ere kondizionaturik dago. Oso erlatibo da, zer den literatura, azken finean. Eta erlatibismo piska bat eta eskeptizismo puska bat, kritikoari eska genezaiokeen gutxiena da, h.d., sentido historiko pittin bat.

Literaturaren antzinaldi batzuetarako neke gabe onartzen dugun hori, arrazoirik ez dago oraingo literaturarentzat ez aintzat hartzeko (beharbada euskal literatura bukaezinezko antzinate batetan dabilelako beti ere), euskararen kondizioek horixe eskatzen badute. Euskal literatura kondizio berezietan produzitzen da: literatur produkzio berezia da, literaturaren produkzio bezala ere.

Alegia, literaturaz ari gara, orokarki eta arrunt, ez gara ari bestela hemen hala Somalian berdintsu produzitua, edo kreatua, izan litekeen obra literari bakanen batetaz.

Izan ere, norbaitek, literaturaz diharduenean, buruan duena, beharbada holako edo halako obra batzuen edo literatur modu batzuen gogo da batez ere; eta besteak, holako eta halakoxe obren eta moduen gogo falta gabe, halare berezkuntza bat egiten du halako obren eta literaturaren beraren artean.

Nik uste dut, euskararen kasuan egin beharra dagoela berezkuntza hori. Ez da nahastu behar zer den literatura eta zer den obra literaria, biok beti elkarrekiko erlazio —aldakor, aldian aldian dife-

rente— batetan ibili arren. Euskal literatura, obra eta Autore zerrenda bat baino gehiago eta besterik da.

Begira: gerra aurea eta ondoa bi aro diferente bezala berezi nahi badira, bion artean diferentzia inportante bat, nik hortantxe somatu uste dut. Orientazio diferentzia bat. Gerra aurean, iruditzen zaidanez, euskal literaturaren arazoa batez ere obra literari haundi batzuen arazo bezala bururatzen zen. Horrela sortu zen Orixeren poema, esate baterako. Gerra aurean, hortakoz, gehiago destakatziren ziren pertsonalitate —indibidual— haundiagoak landu dira: Lizardi, etab., ikaragarria izan bait da horien lan indibiduala. Baiña ez da literaturakoa bakarrik orientazio jeneral hori. Indibidualitate haundien aroa da, nolabait. Karismen aroa (zentzu positiboenean). Pioniero haundiena. Horra Azkueren hiztegitintza, erraldoi bakarraren lana. Agirre, egiazko liderra, orain beste halakorik ikusten ez dudan bezalakoa. Barandiaran. Baina gaur —kolektibismoaren aroa edo— politikan «masak» (agian hobeki, masa aparatoak) gailendu diren moduan, eta etnologian, inbestigazio indibiduala baino gehiago, laboratorio eta ekipo lan sistematikoa egiten den bezala, literaturan ere beste jokaera, sentiera, lan manera batzuek osatzen dute gure «aroaren izpiritua». Egungo poetak, edo linguistak, etnologoak, ez ote dira «berez» (?) gerra aurrekoak adinako pertsonalitate haundiak eta destakatuak? Ez dakit, seguruenik bai. Mitxelena bat, pentsatzen dut, Azkue baino mila aldiz hobeto dago prestatuak, bere alorra zientifikoki lantzeko. Baina gaur, uste dut, linguistikan ez da posible Azkue bezala ihardutea, lehenengo (eta, besteak beste, Azkue bat egonda dagoelako); eta, gero, linguista haundienak ere, gizartean hartzen duen lekua beste bat da, eta beste modu batetan eta oso beselakoa izango du oihartzuna. Berdin poetak, etab., *mutatis mutandis*. Ez da hainbeste destakatuko indibidualitate gisa. Eta horrek ez du ezer esan nahi haren egiazko haunditasunaz eta egiazko balioaz. Bakarrik, beste mundu batetan dagoela. Gure historiako beste une batetan. Denborak aldatu egin dira. Aldatu egin da «aroaren izpiritua». Jarrerak, jendearenak; metodoak, edozer gauza egiteko edo egina ikusteko. Beste harreman edo erlazio sistema batetan oihartzun dira gauzak, gertatzen dira indibidualitateak (pertsonak hala obrak).

Bestela nik ez dakit, Aresti «berez» (hori zer den ere) Lizardi bezain pertsonalitate poetiko destakatu den ala ez. Ikusten dudana, da, «berez» halaxe baldin bada ere, ez dela ailegatzen indibidualitatearen paper hortara, beste pertsonalitate haundi batzuk ailegatzen ez diren bezala, beharbada paper hori egon ez dagoelako gure oraingo gizartean.

Gero, beti kexu eta intziri-mintziri gabilta, zer gertatzen den eta zergatik gertatzen den ulertu ezinda. Biografia bat bi liburuki osotan idatziko da, Euskal Herriak, kritikak, publikoak, zein injustuki jokatu omen duten, salatzeke, poeta moderno haundiarekin, zor zitzaion begirunea erakutsi gabe. Agertzen da obra seinalagarri bat («azken urteotako hoberena», esan ohi denez) eta kritikak ez omen dio kasorik ere egin... Baina, zergatik? Kritikan eta, ezin uka ditzakegun hutsuneak aparte, beharbada egiazko problema ez da, indibidualitate (Autore, obra) horiei ez zaiela inportantziarik *ematen*: inportantziarik EZ DAUKATELA, da, problema, oso kondizionatua eta erlatiboa bait da inportantziarik izatea ala ez izatea. Alegia, momentu honetako giroan ez daukatela. Ez naiz egoera hori legitimatzen ari. Alderantziz, begira dezagun, zer egin behar den, Autoreek, obra destakatuek, merezi luketen inportantzia berriro izan dezaten. Baina ikus dezagun lehenengo, non gauden, zergatik gertatzen diren horrela gauzak.

Azken urteotan, bistan dago, inflazio politikoak borroka kulturalaren eta, beraz, literaturaren interesa estali edo duela. Horrezaz gain, kultur lanean bertan, literaturari baino gehiago begiratzen zaion beste alorrik bada gaur, premiaren premiaz (ikastolei eta, erantzun beharra dago). Baina hori ez da dena, arrazoi «extraliterariak» alegia: ez dakit beste arrazoi horiengatik, ala horiekin batera soil, arrazoi orokarragengatik, baina literaturgintzan bertan, nik us-te, obren problema eta literaturaren problema bi gauza direla, ikusi da eta planteamendu orokarrak aldatu egin dira. Juzkaerak, etab.

Sarasolaren *Hiztegi Arauemailea*-n holakoak ikusten dira (adibide egokienak hautatzen ote ditudan, ez dio axola):

- *nagusigo*, iz. (kult.) Nagusia izateagatik hartzen den lehenetsuna, → *kult.*
- nare*, adj. (lit.) Barea, → *lit.*

Sarasola literatura (poesía) eginez hasi zen eta, kritiko bezala, literaturaren balorazioan kriterio linguistikoak eta, extraliterariak, erabiltzearen kontra protestatuz. Orain hiztegi gintzan ari da. Zer da hori, —kapitulazio bat? Segurantzia —ekonomiko, sozial— bila egin den traiektoia, poesigintzako insegurantziatik instituzio batzuek babestutako patxadara? Ez dakit, beharbada horixe da Sarasolaren edo besteren baten kasu pertsonala. Ez dio batere inporta. (Baina segurantzia beren bokaziotik kanpora bilatu beharrean, bat eta bi ez, baino euskal idazle gehienak aurkitzen badira, kontuan hartu beharreko dato bat izango da horixe ere, euskal literatura epaitzeko). Bes-

teak beste, nolabait «kolokatu» nahia utzita, nik uste dut, badagoela beste arrazoi bat, objetiboa, poesiatik hiztegitzarako traiektoria esprikatzeko: insegurantzia literaria, poetak eta kritikoak bere eginkizunean bertan, barruan, ezagutu zuena. Ez al da sintomatikoa, Arestik ere bide berbera egin zuela? Eta orain hiztegitzanza dabilen bestea, Luis Mari Muxika ere, poesiatik etorri dela hiztegitzanza? Zientzia-fikzio orain. Nobela modernoaren abiarazlea, Txillardegia, *Sustrai bila* eta *Euskara batua* idazten eta UZEI-n lanean dabil... Beharbada, batetik bestera, lehenetik dirudien baino xuxenagoa eta laburragoa da bidea, euskal munduan. Bide logikoa, bateko esijentziek bestera daramatena, Poesigintzatik hasi eta hiztegitzanza jotzeko, bitxia badirudi ere, badago hamaika arrazoi, euskaraz...

Nik, bada, *lit.* eta *kult.* horiek seinatu nahi nituen Sarasolaren *Hiztegi Arauemailea*-n. Izan ere, hiztegitzaleak erakusten diguna, literatura, obra mordo bat baino lehenago, edo aparte, «hizkera» bat da, zentzu zabalean: hitzak baino ere gehiago, estiloak, etab. «Komunikazio modelo unibertsal» berezi bat, esanenez; edo «dialekto sozial» bat, kultural bat, nahiago bada. «La literatura se expresa en un lenguaje especial, el cual se superpone sobre la lengua natural como un sistema secundario, —irakurtzen diogu Y. M. Lotmani. Por eso la definen como un sistema modelizador secundario... Decir que la literatura posee un lenguaje, lenguaje que no coincide con la lengua natural, sino que se superpone a ésta, significa decir que la literatura posee un sistema propio, inherente a ella, de signos y de reglas de combinación de éstos, los cuales sirven para transmitir mensajes peculiares no transmisibles por otros medios» (*Estructura del texto artístico*). Poeta modernoak —Otero, adibidez, edo Gandiaga— hizkera korrienteren alde agertzen badira, falsete poetiko berezi orori uko eginez, ukatzen den hori badagoelakoxe da. Euskaraz, ordea, esaten zuen Arestik ere, oso problematiko da, ba ote dagoen, edo zein modutan eta neurritan dagoen.

Hor dago problema, lehenengo problema, oinarri-oinarrizko problema. Alegia, *literaturaren* problema. Gero, kalitatezko obra literariaren problema —horiek eskatzen direnez gero— besterik izango da. Kasu bakoitzean ikusi beharko da, Autore batek, edo obra literariak, zein neurritan aurkitzen duten, edo ez duten, problema hori, oso zirkunstantzia ezberdinetatik bait dago hori azken finean. Baina euskal literaturaren problema, euskara, hizkuntza ofizialik ez den moduan, eskola eta estudio hizkuntzarik ez den moduan, hizkuntza literaririk ba ote den zein neurritan den, da, mundu modernoan. Euskara kultur hizkuntzarik ote den bezalatsu.

Idea zuzenik baino buruetan ondo sartuagoa da, halare, hezkuntzaz eta tradizioz, literatura, Autore eta obra literari pila batekin identifikatzea. Hartzen dugu Frantziako literaturaren historia bat, eta Autore eta obra pila bat aurkitzen dugu. Orduan, literatura eder bat obra eder batzuek egiten dutela, iruditzen zaigu. Zuhaitzak ikusten ditugu, ez basoa. Eztabaida gehienetan, hitz «literaturaz» hitzegiten badugu ere, barnagoan «obretan» bakarrik pentsatzen dugula, egiten du inpresioa. Niri, ordea, inportantea iruditzen zait, euskaraz bederen, literatura eta obra literaria bereztea.

«Hizkera» hori —literatura— zer den zehatz, galdetuko zait eta ez dakit. Definitzen ez dakit. Eta ez dit inporta. Espero dut, euskaraz idazten dugun denok ailegatzten garelako diferentzia hori somatzera (niri, behintzat, linguistikako edo sozio-linguistikako liburuek baino, praktiak erakutsi dit) eta gure artean ez dagoela esplikazio asko beharrik, ulertu nahi duenarentzat.

Aspaldi seinatu zitzaigun, hizkuntza, momentu jakin batetan berean ere (diakronia aparte, beraz) ez dela gauza sotil bakuna eta estatikoa: euskara, esate baterako, monolito bat, —elementu desberdinen konbinazio pluriforme dinamikoa baino. Euskararen baitan euskarak daude: hizkerak. Gero, hizkuntza/hizkelgi/hizkera, hizkuntza ofizial/ez ofizial, etab., berezkuntza gehiago ere egiten dugu gauza beraren gainean eta hizkera idatziak, esate baterako, ezaguna da eragin handia duela mintzairan («Urliak periodiko batek bezala hitzegiten du»), desberdina noski irakurzalearen eta analfabetoaren gain. Hizkuntza moderno bat izkribaketaren eraginpean dago, lexikoan ezeze sintaxian ere. Eta berdin ofizialtasunaren ala ezaren eragintzapean, etab., hizkuntzaren maila eta barruti diferente guztien arteko harreman mogimendu sistematiko batetan. Horrela hizkera vulgar eta kultoa berezi ohi ditugu; zientifikoa, teknikoa, edo hizkuntza batetik bestera franko diferentea izan ohi den hizkera afektiboa. Eta hizkera poetikoa. Eta literaria, ez kultoarekin eta ez izkribu hizkerarekin beste gabe berdintzerik dagoena (euskaldunok arrazoiez destakutzen dugu ahoz-ahozko literatura), baina eragintza konplexo arteko erlazioetan desarrollatuz doana historian, musika bezalatsu (gaur ez dago Bach edo Mozarten garaian bezala konposatzerik, Sarasolak obserbatu izan duenez), Lotmanekin «una jerarquía compleja de lenguajes relacionados entre sí» legez har genezakeena. Esan beharrik ez, hizkera literaria historikoa dela: eskolak (ofizialtasunak, hortakoz), izkriburik izateak ala ezak, etab. harengan badutela eraginik; tradizio literariak baduela eraginik; literatura bat beste haundiagoren batzuen eraginpean egoteak baduela zerikusirik (Saizarbitoria ira-

kurtzea dago), etab., etab.eta, beraz, ez dagoela zergatik pentsatu, absurdua litzatekeenik, euskarak noizpait bere hizkera literaria eduki izatea, eta gaur ez. Mila modutako erlazio mundu konplexo hau, hizkera artean, aztertu ez badugu ere, edozein euskal idazlek ezagutzen du bere lanetik. Eta euskara literari —*ad casum*, poetiko— landu, moderno baten falta, ez da nik asmatu dudana lamentoa. Aresti baino lehenago, Oihenart bera adiakatzen zen. Eta Lauaxeta, etab.

Konplexo hau dena hobeto estudiatu beharra daukagu, edo, gutxienez gogoan eduki beharra. Beldur naiz, ordea, literatura berbaloratzeko asmoarekin, nahiago dugula hori dena ahaztu: hots, gertatu, literatura, kreazioa, obra literaria, non gertatzen den, zazpi musen probintzietan ez dakit, zazpi euskal probintzi musa gabeotan bai. Gramatikoeak eta hizkuntzalariek eta profesoreek eta korrektoreek eta hamar egunetan euskara ikasteko metodoek, Akademiek eta Erri-Akademiek, tiranizatzen duten mundu itogarri honetan, konprengarria da edozein nazkatzea eta sare horiek eten nahi izatea, literaturaren independentzia errebindikatu. Baina literaturaren independentzia mugatua da. Besteok ere ez gara sareekin konformatzen, errealitatearekin baino: errealitatea horixe dela, iruditzen zaigu, eta horixe bihurtzen duten arrazoi objektiboak nola gaindiatu, da, gure kezka ere.

Euskal literaturan, obren problema, kreazio orijinalen problema, ez dago isolatuta kontsideratzerik. Bertsolaritzan, adibidez, pozgarria izango da Xenpelar bat edukitzea. Baina ez da Xenpelar, bertsolaritza egin duena. Euskal bertsolaritza inoiz holako tamainatara iritsi izan ez balitz ere, hor legoke bertsolaritza bera. Gauza bat da Xenpelar —esan dezagun, izeberg punta— eta beste bat bertsolaritza. Xenpelarrik eta Udarregirik gabe, bertsolaritza bada zerbait: eta zerbait horretan dago, dabil, Xenpelar, untzia uretan, —obra literaria literaturan. Xenpelarren bertsoa baino lehenago bertsolaritza dago.

Gero, ordea, denok dakigu erlazio dialektiko bat dagoela eta Xenpelarrek bertsolaritza ere egiten duela: bertsolariak bertsolaritza, obra literariak literatura, literatur mundua. Alternatibarik eta antinomiarik ez dago horien artean, elkargintza baino. Bat nahi duenak bestea nahi du. Literatura nahi duenak, ezin nahi izan ditzake obra literari ederrak, apartak, bakarrik: eta ez, *Divina Comedia*-rik idatzi gabe eta irakurri ere gabe pasatzen direlako kristau gehien-gehienak mundu honetatik (ez horrenbeste literaturarik gabe), baina obra orijinalak, kalitatezkoak, ederrak, nahi dituenak, mirari bat nahi ez badu, azpiegitura bat nahi behar duelako, obra horiek sor daitezen, ez kasualitatez, baina normal.

Ez dakit optimistegia naizen: nik uste dut, ari garela literatura egiten. Ikusi nahi den baino gehiago. Liburu bakan, harrigarriei bakarrik begiratzen bait zaie oraindik; aldizkarietan, edo anbizio gutxiagoko obretan, egiten denak, ez bait die kritikoei oraindik aipamen llabur bat ere merezi ohi. Lan apala izango da, baina azpiegitura ematen ari zaio euskal literaturari. Gereñoren nobelak, sentido batean, ez dira «literatura» izango. Baina literatura egiten ari dira, narraitibaren desarroilo haundirik ez duen euskal literaturan. Eta nik, bes-telako merezimenduak aparte (irakurleria biltzea, etab.), literaturaren beraren amorez ere, literatura bezala hain zuzen, ez dut batere mes-pretxatzen literaturgintza hori.

Askotan literaturgintza indirektoa da beharbada. Periodismoa- rekin gertatzen dena, esate baterako. Urte batzuk duela, gure aste edo hamaboskarietako hizkera periodistikoa, soporta ezinezkoa genuen. Hizkera periodistikorik batere ez zen hura. Nolarebait poesia-ko edo saiogintzako idaztankerak erabiltzen genituen periodismoan ere. H.d., gure zereginak —prosan, poesian; teatroan, nobelan, perio- dismoan— ez zuten behar bezalako diferentziapenik. Autoreetan ez dagoelako behar adina diferentziapenik, ez eginkizunetan (denok ga- biltza denetik egin beharrean), ez formazioan, eta funtsean idazten genuen guztiak konzepzio politiko-literari berdinari, bakarrari, erant- zuten ziolako ere bai. Diferentziapenak ibilian-ibilian egiten dira. Gaurko *Z. Argia*, *Anaitasuna*, *Deia*, *Egin* ikusi eta, nik uste dut, gar- bi dagoela hizkera periodistikoak egin duen aldea Rikardoren egune- tatik. Gaur badago hizkera periodistiko bat (eta *Ustela*-k, *Oh Euzkadi*-k, *Pott*-ek, batzuetan parodiatuz, besteetan aprobetxatuz, ongi isladatzen dute, badagoena!). Hobeto esan, hizkera periodisti- koak daude. *Anaitasuna*-koa eta *Z. Argia*-koa ez dira berdinak. *Goiz Argi*-k, aldiz, hizkera periodistikorik ez dauka, buletin periodismo- koa ezpada: *Prawda* hizkeraren eta *Arantzaguko Amaren Egutegia*- ren artekoa. Eta nik espero dut, sektore bakoitzak, osotasunaren bar- ruan independentzia irabaziz joan hala, gehiago aportatzen diola li- teraturari, periodismo sasi-literari (kuasi-poetiko, artxi-saiaerazko) sofistikatu bat eginez baino. Eta uste dut, literaturak, «jerarquía com- pleja de lenguajes relacionados entre sí» bezala, behar-beharrezkoak dituela diferentziapen horiek, absolutuak ez badira ere. Eta ari garela diferentziapen, aberaspen, horiek egiten, polliki-polliki.

Azken urteotan sarri egin diren ohar kritiko partzialak —meta- fora eta konparazioen karaktere nekazaria, esate baterako— biltzeko eta planteamendu orokar batetan artikulatzeko ordua da. Euskara, literalki, desarroilatu gabeko hizkuntza da. Orixek astun eta kamuts

aurkitzen bazuen euskara, eta lan asko egin bazuen arintzen eta zorroztzen, euskarak beste aje asko du oraindik, hizkuntza literari bizi eta normal bat bilakatzeko gizarte modernoan.

Azken urteotako programa guztiak eta borrokak, euskara modernizatzeko, kaletartzeko, standardizatzeko eta hizkera tekniko bat finkatzeko, etab., gorabehera linguistiko hutsak direla, pentsatu behar al dugu, eta literaturak ez duela horrekin denarekin zerikusirik?

Transposizio bat egiten ari naizela, eragotziko zait. Eta bai: literaturaren problema hein batetan hizkuntzaren problemarekin berdintzen ari naiz, normalizatu nahita gabiltzan euskararen problema-rekin. Ez, noski, hori gabe literatura inposible genukeelakoan (*A los Torrea* holako ezer gabe egin zen), edo literaturaren problema hori besterik ez delakoan, hiztegegileen edo problema beraz. Baina lehen maila batetan horrelaxe planteatu beharra dagoelakoan euskal literaturaren problema, euskal literaturaren normalizapen bat nahi badugu. Gero geroakoak. Euskararen problemak dira euskal literaturaren lehenengo problemak.

Izan ere, hizkuntza arazoa abstrahituaz, euskararen egoerarena bereziki, planteatu daiteke euskal literaturaren arazoa, munduan dabilzan korrante literarietatik eta haien literaturtasun esijentzietatik, «normala» horixe dela onartuz, beste edozein literaturaren moduko literatura nahi dugunez gero euskaraz ere. Baina nik beti ere nahiago izan dut, euskal literaturaren arazoa, hasteko, kanpotik baino, bere baitatik, bere barneko miserietatik eta kontraesanetatik eta indarretatik planteatu, oinarrian zer problema dauzkagun ikusiz, eta gero pentsatu, horronte literari haien pareraino nola iritsi: ez da problema literari espezifikoaren autonomia ukatzea, haiek aldi aldiko eta lekuko hizkuntzarekin erlazioan ikustea. Lehenengo eta gero hauek ordenu logikoa adierazten dute, ez derrigor kronologikoa. Plan kinkenal asmorik batere ez dago. Ez daukat batere eragozpenik, onartzeko, poesia supermodernista batek askotan gehiago egin dezakeela euskara hizkera literari moderno bihurtzeko, mila hiztegi orrialdek baino. Eta gutxiago izan nezake eragozpenik, onartzeko, euskararen normaltasun tekniko, linguistiko perfektoena ere ez dugula aski izango, literatura izateko. Bi gauza dira eta ez ditugu nahastu nahi; baina lotuta ere badaude eta, lotuta dauden neurrian, ez dugu ahaztu nahi, ez hautsi nahi, duten eta behar duten lotura.

Literatura: kreazio kolektiboa

Beste gauza asko aipatu beharko litzateke oraindik, nolarebait literaturaren konzeptuarekin ikuskizunik baduena, euskal literaturari buruz hitzegiterakoan gogoan izan beharrezkoa:

- historiak esplikatzan du, zergatik euskal literatura intimitate —erlijioso, poetiko— batetan kuzkurto den mendez-mende.
- gure herrian kulturgintzak egun duen karaktere politiko-soziala, alfabetakuntza karakterea, esate baterako (eta baita idazleen beren arteko elkar eskolarena ere).
- Zein baldinkizun artean ari den euskal idazlea, aipatu beharko genuke orobat: nondik eta nola sortua den idazlea; nola ikasi duen bere lana eta burutzen duen; nola dagoen organizatuta, espresabiderako organoak, argitalbideen mundua, etab. Literatura ez baita da kreaizio soila, produkzioa ere baino, edozein sentidotan.

Holakoak, eta gehiago, Torrealdayek estuadiatuta dauzka bere *Euskal Idazleak Gaur*-en. Hain zuzen kreaizio/produkzio konplexo horretan, kreaizioa errepresentatu nahi luketen (literatoren) batzuen aldetik, eta gure ikuspideetan kreaizioari behar adina inportantzia ematen ez omen diogula, kritikatzan digutela, ekibokoren batzuk sortu dira, nire ustez, hortaz ere oharren batzuk egin beharra bait dago.

Mito denak irauli beharrean, irauli genuen musen mitoa, irauli, baina musen Ancien Regime hura herriro restauratu nahi dugu: «kreaizio» izenarekin orain. Literaturak beti ere sakrasantua deklaratzan du literatura, beste sakrasantutasun denak profanatu arren, aitakia batekin ala besterekin literatura beti ere mandarin gutxi batzuen pribilejiotara altxatuz. Musengatik izango da, edo haren inspirazio bereziengatik, edo sensibilitate bakanagatik, baina beti zerbaitegatik, literatoa gizaki aparta da, ezohizkoa, kristau korrienteekin konfunditzerik ez dagoena. Orain ez dira haren sensibilitate aparta edo inspirazio berezia aipatuko; haren kreatibitatea aipatzen da orain. Baina literatoa, h.d., kultibatzen den literatoaren ideia, irudia, beti ere gizaki berezi batena da (bohemiotasun eta beste estereotipoetaraino).

Ezohizkoak eta bereziak, ordea, literatoen artean ere gutxienak izaten dira. Lizardi bat ez da egunoro sortzen. Eta sortzen denean ere, Lizardirik ez den mordo baten artean sortzen da eta ibiltzen da. Ezin esan genezaioke literatura, hoberenari bakarrik, beste dena baztertuz. Literatoak ez dira «kreatzaile» guztiz orijinal, edo orijinal us-tetako, horiek bakarrik.

Nik, behintzat, uste dut, euskal literaturak momentu honetan duen arrisku bat, gaur, urteotan gogor profesionaltasuna, kalitatea, etab. etab. esijitzen ibili ondoren, literaturaren beldur errespetoa dela. Eta nahi nukeena, da, zerbait literatura bidez esateko duenak, egin dezala libre eta lasai, jeinu literari bat ez bada ere, bere saioa. Edozeinen eskubide eta espresabidetzat bait daukat literatura, talentu edo jeinuren batzuen kreaizio guztiz bitxitzat baino lehenago. Eta teknika edo artetzat adina, espresabidetzat bait daukat. Isur dezala bar-

nea, nahi duenak —eta ez poesian bakarrik: prosan ere— preokupazio tekniko larririk gabe, konplexo gabe. Ipuin bat kontatu nahi ligukeenak, edo bere ametsak, irudipenak, nobelak, dramak, konta diezaigula kontatzekoa, guri, bere lagunoi, bere kontakizuna historian geratuko ote den pentsatzen egon gabe. Literaturak ez du izan behar historiarako idazten duten letrapez kanonikoen liturgia.

Eta irakurlearen aldetik: *Barne muñetan* edo *Gero* irakurriaz hasi behar ote du, derrigor, literatura irakurtzen hasi nahi lukeen euskaldunak? Edo, denbora pasa, irakurri, beste gabe, nahi duenak, futbol partidua ikusi baino nahiago duelako, derrigor erdaraz egin behar al du? Lehen euskaraz biraorik egoterik ez zegoen moduan, orain ez al du egon behar Estefaniarik? Zer literatur puritanismo da hori? Asaba zaharren baratzan porru berriak, berriz ere...

Kreazioaren mito berriarekin, lehenagoko mito zahar eta planteamendu denak berbizten ditugu, beharbada poema nazionalaren lekuan abangoardia nazionala eta literatura «kreatiboa» jartzeko diferentziarekin axalean, diferentzia oso gutxirekin barnean. Arraza garbia, euskara garbia, literatura garbi-garbia.

Beste literatura hori, propio anbizio literari gabe egina, «kontsumo literatura» deitu izan dena —nobela poliziakoak, adibidez— kontrakarra batek nahi duenez, alienatzailea omen da. Ez dakit zergatik. Ez dakit, ez Kant, ez Marx, ez Bakunin, adibidez, literato apartak izan zirenik. Eta alienatzaile izate, ez izateak, obra baten kalitate literariaren proportzioan zergatik egon behar duen, nobela poliziako literalki simple batek zergatik alienatzaile izan behar duen esate baterako, ez naiz ailegatzen ikustera.

Beste kontrakarra baten arabera, holako literaturaren produktioa suspertuz, literatura ona eta kreazioa promozionatu ordez, mediokritatearen apologia egiten omen dugu... Holako anbiguitate apur bat, horixe ikusten enpeinatuta dabilenarentzat behinik behin, ezparririk gabe badago. Baina, lehenengo, mediokritatea, ezerez baino gehiago da. Bigarren, obra «mediokre» gehiago behar dugula, esan duenak, ez du esan, bestelako gehiago behar ez dugunik. Eta, hirugarren, «mediokritatearen» apologia bat, lehen inoiz egin ez badut, oraintxe egingo dut... Izan ere, nik ez dakit, buruan zer darabilgun. Mediokritaterik ez dugu nahi. Baina asmoak asmo, ala asmoak amets eta ametsak asmo, herri ttipia gara gu, mila modutan zordun gu baino haundiagoei. Eta, gutxi-gorabehera nik imajina nezakeen etorkizun guztian, holatsu jarraituko dugu, Jainkoa lagun. Euskal literatura ez da diztiratsua. Apala da. Baina gure erromanikoa, gotikoa, barrokoa, ez dut uste ikaragarriak direnik. Beste munduko gau-

zarik ez da gure pintura. Gure musika... Geure neurri samarreko pintura, musika eta arkitektura batzuk baditugu halare. Literaturan, ordea, geure neurri ere ez gara iristen, nire ustez (besteak beste, Unamuno bezalako Autore «alienatuek» erdaraz idatzi digutelako: martxa honetan berriz ere laster gertatuko zaiguna). Kreaio haundiak, dirudienek, produkzio haundia dagoen tokian sortzen dira gehienbat eta normalean (Gorte inguruetakoa pintura, teatroa, etab.). Hemen, batez ere hizkuntzarekin lotuta doan artea gelditu zaigu «mediokre»-tatik ere behera, betiko gure hizkuntzaren problemagatik. Baina, hori aparte, gure ttipitasunak berak arrazoi bat dirudi, gure egoera artistiko arrunt honetarako, literaturaren historiarako are espreskiago. Hemen lan artistikoa nekez ailegaten da inoren, zer esanik ez talde osoen ofiziorik, beraz dedikazio osorik eta espezializaziorik, izatera, horrek esan nahi duen guztiarekin: medioen oparotasuna, askatasuna, eskola diferenteen konkurrentzia, entsegu diferentetarako posibilitateak, etab. Bizitza artistikoaren bizitasuna. Beste lekuetan ere gehienbat subentzioz eta mezenazgoz lortzen dena, zuzenean ala zeharka. Ttipitasuna, hein honetan, txirotasuna da. Batez ere kontu egiten badugu, gure ttipitasunean sartzen dela, «euskal» burgesia bera española izatea (edo frantsesa), euskal literaturaren sostengu soziala orain artean —eta denbora batez, nik uste— herri pobrea izan dugularik eta izango. Oro har, gure artisten eta idazleen kondizioak mediokreak baino ere gutxiago dira, beren formazio kondizioetatik hasi eta informazio eta komunikazioraino, zabalkunde eta eritzi kontrastapeneraino, kritikaraino, nola eta non lan egiteraino eta tresnetaraino. Horregatik, gure lan askori azkeneko betetasuna, biribiltasuna, falta zaio. Kondizioen marka darama. Eta hori, normalean behintzat, agian beti horrelaxe izango dugu.

Musikatik hartuko dut adibide bat. Zer musika bizitza dago Euskadin, koruena edo izan ezik? Sarasate, biolinista haundia bazen, pianoaren ideia haundirik ez zuen, iruditzen zaidanez: eta biolinaren zailkeria eta virtuositate guztiekin, dantza espainoletan esaterako, pianoak desanparatuta dabilela ematen du bere aldetik, zer egin ezin asmatu, eta resultadua, azkenean, pianoren eta biolinaren arteko efektismo zipriztineria baten parrastadak dira. Irregularra da. Urratua. Zatiek eta konjuntioak ez dute harmonizatzen. Desnibelatua da.

Saizarbitoriaren nobelistika ona da, baina, euskara, esate baterako, txarra omen da (alderantziz, Txillardegiren euskara ona da, nobelistikak nahiko kritika izan du), etab. Eta gauzak gure herrian zertegatik holaxe diren, galdetzen dut nik.

Izan ere, ez al zaigu hori, artean edo literaturan ezezik, industrialian ere holaxe gertatzen, eta ez al da hori, antzina-antzinadaniko gauza bezala, gure mitologia zaharrean bertan ageri? Inguruari zordun dela eta beti akabatu gabeko lana bezala dela, tensio batetan bezala, beti fragmento samar?

Zaila da gure literaturak ekilibriorik bere baitan eta osotasunik iristea, —denok dakigun bazain erlatiboa baikere. Hortan literaturak ez du gizartearen situazioa isladatu besterik egiten. Gizarte ttipia eta gainera desmenbratua gara. Euskal literatura oso ondo ezagutzen duenak, ez du batere ezagutzen historia politikoa. Historia ezagutzen duenak, ez artea. Mosaiko puskatu bat gara, gure bihotz eta buru barrenetaraino. Eta nik ez bait dut sinesten, hori dena Francok ekarri duenik, ez dut sinesten, postfrankismoak aisa erremediatuko digunik. Nobelistika menderatzen duenak, ez du euskara menderatzen, etab. Hori, nik uste, gure konstante bat da eta luzaro halaxe izango da. Beti gure muga herstuen gainetik kanpora begira ibili beharko bait dugu ere. Ez gara —zorionez—, nahita ere, bere buruarekin aski lukeen herri bat. Euskal poetak, nobelistak, besteak beste —alegia, dedikazio falta, pluriemplegoa, etab. beste— erdarazko Maisu eta ereduaren eraginaren pean ibili beharko dute beti. Eta horrek teinka bat sortuko dio beti euskal literaturgintzari, euskal literatoei, positiboa izan litekeena, baina arriskutsua ere bai, geure euskarari hobeto eta sendoago finkatuak ez gauden artean gutxienez, h.d., euskara bera hobeto finkatu eta normalizaturik ez dagoen artean literalki.

Ez da, voluntarismoan ez dudala siniesten: lortzen dugun gehiena, voluntarismoz lortzen dugu. Baina mirarrietan ez dut siniesten. Ezta Etxeparearen ametsetan ere: beste hizkuntza orori gain hartuko diogula. Alderantzia da egia: beste hizkuntza oro gainetik izango dugula (hizkuntza esaten dut eta beste zerbait esan nezake). Euskal literaturaren etorkizunaz pentsatu nahi dugunean, ez daukagu ahazterik gure situazioa. Herri ttipia izatea ez da dato estatistiko soila: esistentzia modu bat da, teinkan, etengabeko adaptazio lanean.

Literaturaz hitzegiteko, literatura baino gehiago dago gogoan eduki beharra.

Konforme, orain arte baino inportatzia gehiago eman beharko diogu kreazioari. Baina kreazioa ez da gauza berdina Donostian bizi diren euskal idazleen barne-diaspora sakabanatuan hala Pariseko eskola, liburutegi, aldizkari, kafe, klub literari, etab. artean.

Aztertzen duzu, gainera, «kreazio» horietako bat eta, kreazioa ukatzeko asmorik batere gabe, kreazio adina (euskal/erdal mundu li-

terarietako) erreproduzio aurkitzen duzu. Eta neuri, behintzat, itxurazkoa iruditzen zait, ez bait nuen kreazioaren beste konzepturik.

«Porque hablar de creación, sin mayores precisiones, a propósito de una obra imaginativa, sean cualesquiera sus méritos o sus debilidades, es una licencia abusiva —polemizaten du G. de Torrek (...). El ser humano inventa —imagina, descubre o redescubre—, combina en el plano de la literatura o de la ciencia los datos de la realidad con las intuiciones de la fantasía o la hipótesis».

«Kreazioa» mundu guztian nola desarroillatzen den begiratu behar: zientzia eta teknikazko iraultzen eraginpean (zinemak eta irratia, adibidez, «hizkera» literariaren aldakuntza haundiak eragin dituzte; literaturaren konzepzioa nola aldatuz doan ez aipatzeko: futurismoak automobilarekin zerikusirik baduela, esate baterako, edo surrealismoak psikoanaliaren eta daguerotipoaren deskubrimenduekin), aldakuntza politikoei lotu-loturik, klaseen desarroiloari halaber, etab. elkar eragintza mundu bizi-bizi eta konplexo batetan. Ikusi besterik ez dago, nola sortu diren korrante literari modernoak, eskolak nola desarroillatzen diren elkarrekin lehian eta nola, kultur mundu guztian, kreazioa, neurri haundi batetan, komunikazioa eta transformazioa besterik ez den. Euskaraz, ordea, Lizardik edo Arestik zeinen eragintzak izan dituzten, hasten garenean, laster aurkitzen gara erdarazko eragileren batzuekin eta normala da. Hemen, politika eta besteak utzita ere, kultur munduak berak ez du aski koherentziarik eta bizitasunik, elkar eragintzazko dinamika bat sortzeko sektore diferentean artean. Horixe da, hain zuzen, lehenengo lortu behar duguna: literaturgintzak, gutxienez, koherentzia bat izan dezala bere baitan; gero, kulturgintza guztiak; azkenik, gizarte bizitza osoa organiza dadila, hots, bilaka dadila organismo bat (niregatik, nahi bezain anarkikoa), gorputz bat. Bestela, gertatzen zaigu, industrialpenaren konsekuentziak esate baterako, geure industrialpenak gure literaturan ondorioak berak izan ordez, Paristik bueltan iristen zaizkigula: industrialpenak Parisen edo sortu zituen konsekuentzia literarien birtatez, heltzen direla gure literaturara... Gure «kreazioa» kanpoan dabilenaren itzulpen/imitazio/kopia bilakatzen da.

Kreazioa dela ta ere, beraz, hizkuntzaren problemara itzuliko naiz ni, kreazioa kolektiboa delakoxe, —eta, beste kreazio oreren oinarri-oinarrian, hizkuntza bera kreazio kolektiboa delako, —eta gure kasuan inportantzia erabakiorra duelako: euskal idazleentzat hizkuntza nolako problema den eta zein sentidotan, Torrealday baitan ikus daiteke, *Euskal Idazleak Gaur*, 1977, 152 eta hur. Nahi

bada eta ez, guk hizkuntzaren problemarekin topo egin dugu beti eta horrek markatu du idazle belaunaldi honen traiektoria.

Esate baterako: Erregearen hitzaldi bat entzuten badugu, bada-kigu aldez aurretik, zernahi esango digula ere, hizkera estereotipo batetan espresatuko duela. Ofizialtasunaren mundua honela espresatzen da. Bere legeak eta formak ditu. Tradizio hertsia baten barnean desarroilaturiko zenbait testu irakurtzen dugunean, hortakoz —testu diplomatikoak edo juridikoak, adibidez: Sobiet Batasunaren kontra Txinak oraintxe botatzen dituen protesta horiek— «kreaziorik» ez da-goela, pentsatuko genuke.

Bakarrik: holako inpresioak, herri kantak ere laster sor ditzake, bere kanon tradizional hertsia-hertsiekin.

Izan ere, krezioak —har dezagun oraingoz hitz hori— ez dauka zergatik izan indibiduala. Hein haundi batetan, ez da indibiduala: hizkerari bagagozkio batik-bat, baina baita forma literariei gagozkie-la ere. Literaturaren historian, aztertzaileak, soka batzuk ikusten ditu, segida luzeak, desarroiloak, hots, historia, tradizioa, bata besteren elkar kreazioa. Teatroa teatrotik sortzen da, nobelatik nobela, etab.

Zenbait dokumentutako hizkera, edo herri kanta, etab. aztertuz, ohartzen dugu, agian erredaktoreak ez duela gauza haundirik pertsonalki kreatu (alderantziz, Egiptoko irudi hieratikoen egileen antzera, formula eginak erabiltzen jakitea da haren artea), baina obra hura, hizkera eta forma eta estilo lantze eta kreative luze baten produkto bezala bakarrik konpreni daiteke. Geure inguruan begira hasten bagara, laster ikusiko dugu: Far West filmetako hizkera bat dago, politikoen hizkera bat, medikuen hizkera bat (ez kaligrafia bakarrik)..., historian zehar eta kolektiboki kreatuak. Beharbada ez Croceren sentidoan, baina hizkuntza bera da kreazio bat, lehenengo kreazioa. Euskaldunok Averroesen forma gabeko lehen materia bezala daukaguna.

Euskaldunok erraz bezain sarri erdarara jotzen badugu, ez dugu «kultur gai» akademikoetan bakarrik erdarara jotzen, falta zaigun egunoro-egunoroko mila hizkera berezitan baino, auto kontuetatik lan eta administrazio arazo sinpleenetaraino.

Eta literatura da —hizkera konbinatuak— kreazio kolektiboa. *Bereterretxeren kanta*, Erdi Aroko epikaren pieza pare baten orde zehun kontserbatu izan balitz, beharbada ez litzaiguke batere orijinala eta kreatiboa irudituko, modulo arrunt batzuetan muntatua baino. Ez dio inporta. Badakigu, obra individual honen Autore indibidualak ezer berezirik kreatu ez badu ere, kreazio maila altu batetan egin dela kreazio hori. Kreazio indibiduala arrunta bada ere, kreazio maila

altu baten lekuko da. Eta oso posible da, kreaizio kolektibo gora baten produkto korriente samarra izatea. Baina kreaizio bikaina.

Puntu hau bukatzeko: ez dut uste, inori burutik pasa zaionik, gure artean, kreaizio artistikoaren indibidualtasuna ukatzea (azken finean, kreaizio kolektibotzat daukagun haren barnean ere: folklore, etab.), ez eta haren inportantzia kaskartzea, hain zuzen borrokatu beharra izan dugun teoria kolektibisten batzuek, egin nahi zuten eran. Halare, guk, eta momentu historiko eta kultural honetan, kreaizio indibidualaren inportantziagatik, kreaizio kolektiboaren inportantzia ahazterik ez daukagula, uste dut. Gurea «zubi belaunaldia» omen dela, esan izan duguna, bere ondorio guztiekin onartzea besterik ez da hori, esaldi hura gortesiako apaltasun formula hutsa ez bazen, eta bai egiazko konzientzia. Ala bukatu ote da «zubi aroa» eta beste aldi bat hasi?

Kulturgintzatik literaturgintzaren autonomiara

Panpina Ustela-n manifestu moduko bat agertu da —«ez dezagun konposturarik gal, halare»— gure literatur mundutxoko guztien kontra protestatuz:

«Boza hau ixilerazten duten guztien aurka aurka gaude: Sariketa literarioen aurka, beren zentzugabekeriaz idazleak ito eta zapuztu egiten dituztelako», etab.

Sariketen aurka aurka ezezen, «gaur eguneko argitara-etxe, al-dizkari eta saioekin ez gatoz bat: hertsiaik eta literaturaz kanpoko (extraliterarioak, beraz) xederen morroi direlarik, marrantatu eta baztertu (nazkatu ere bai) egiten dituzte eztarri berriak». Euskal saioa txarra da. Nobelagintzarako ez dago girorik. «Zeren literaturak bai bait du bere dinamika propioa ta berezia». Hemen, ordea —hori adierazi nahi da duda gabe— dinamika desliterari batek (politikoak edo) domeinatzen ei du literatur mundu osoa...

Hasarreak eta protestak dauden artean, bizirik gauden seinale da, esango zukeen, orain urte batzuk, orduko gazteen alde biziro saiatu zen kritiko batek. Orain, oraindik halaxe izan arren, gehiago ere esan beharra dago honez gero. Izan ere, protestak eta hasarreak ere, gehiegi repetitzen direnean, apenas gertatzen dira errosarioa baino askoz dibertituago. Eta hemengo hasarre eta protestetan badago gehitxo repetitzen ari den zerbait:

— Orain, entzuten dugunez, euskarari eta euskal kulturari, egitekoaren konzepzio politikoak dena menderatzen omen du, eta plan kinkinalak edo omen dauzkagu, euskara normaltzeko, eta alfabetatzeko, eta

ez dakit zertarako, baina ez daukaguna literaturaren konzepzio bat omen da, eta literaturarik ez omen daukagu (egiazkoa), asmo politiko-kultural haien zerbitzuko sasi-literatura baino.

- Orain urte batzuk, ez asko, Haranburu Altunak euskal literatura guztia deklaratu zuen desliteratura, ez oraingo produkzioa bakarrik, klerikalismoaren eta burgeskeriaren morroin hutsa izan omen bait da beti: «gure literaturaren kondaira euskal burgesiaren ideologia atzerakoiaren historia da».
- Sarasolak, aldiz, lehentxeago, baserritarkeriaren historia bat ikusten zuen, gutxi-gorabehera, euskal literaturaren historia guztian.
- Eta lehentxeago —Krutwig, Txillardegí— aberrazio politikoz eginda-ko garbizalekeriak eta sasi-literaturak besterik ez ziren ikusten azken 60 urteetako literatura guztian (ik., adbz, Villasanteren *Historia* ere). Badakigu, lehenagokoek ez zutela ikusten mordoilokeria besterik beren aurrekoetan eta berek asmatu omen argia. Haientzat ere konklusioa erraza bait zen: «Euzkerarentzat (eta, beraz, Euzko-endarentzat) gauzarik kaltegiñenetako bat izan da: erderaz *Literatura* deritzan izkel-ertiya euki ez izana» (K. Eleizalde).
- Eta gure belaunaldiok baino askoz lehenago, Oihenartek, planteamendu berdintsuak zerabiltzan poesian: euskaldunek, egin bai, egiten omen bait dute poesia, baina honen erregelak eta izaera (hots, espresaera landua, rima, etab.) ezagutu ere gabe. Sasi-poesia vulgar bat.

Hemen, nonbait, eskola guztien koinzidentzi puntua hortxe dago beti: aurretik literaturarik ez dagoela (gehienez ere sasi-literatura), eta gurekin hasten dela egiazko, benetako literatura.

Koinzidentzia hori aparte, eritziak ez dira etortzen oso bat. Oihenarteri bertsolariak eta koblariak ez zioten agian begiramentu haundirik merezi: poesiak, kultura behar du; *Panpin Ustela*-k bertsolariaren inportantzia literaria destakaten du. Lasagabasterrentzat utilitarismoak itotzen digu euskal literatura; oker ez banago Ibarrentzat —*Genio y Lengua*— aldrebes zen. Euskal literaturan dena lorrintzen duena, mordoilokeria omen da; ez, garbizalekeria baino... Hauziotan, gustu guztietarako adina eritzi dago.

Badirudi, euskal literaturaren arazoa esklusibismorik gabe, aski zabal, hartu beharra dagoela, errealtateari justizia egingo bazaio: h.d., bestelako planteamendu batzuk egin beharko ditugula, euskal literatura nondik nora dabilkigun, ikusi nahi badugu. Literaturaren arazoan, poesiaren arazoa sartzan zaigu eta periodismoaren arazoa sartzan zaigu, orain oraingoz; nobela sinpleena eta epopeia nazionalarena; bertsolariena eta —nire ustez— UZEI egiten ari den hiztegi-ena... Literaturaren arazoa, beste mila arazorekin lotuta egonik ere, euskararen arazoarekin bait dago bereziki loturik. Eta agian hortixe sortzen dira gure katramila eta hasarre gehienak: euskararen arazoa eta literaturaren arazoa ez ongi bereztetik. Eta —egoera holaxe da- goelako— ezin ongi bereztetik.

Euskararen arazoa, literaturaren arazoa

1951ean L. Mitxelenak *Euskal Literaturaren etorkizuna* izeneko saioa eman zuen argitara, 1962an F. Krutwigek *Euskararen etorkizuna* izenekoa: euskara moderno baten arazoaz Krutwigek eta euskal literatura moderno batenaz Mitxelenak.

Egun sortu diren planteamoldeekin alderatuta, textuotan euskara eta euskal literatura, oraindik esanahi berdineko terminoak bezalatsu direla, ematen du funtsean. Orduko planteamenduetan, hots, kontextuan, euskara modernotzeak eta euskal literatura modernotzeak ia gauza bera adierazten zuten agian (1). Gaur ez. Gaur, abangoardia literariak —nobelaren berrikuntzak, adibidez— eta euskara moderno eta zientifiko bat finkatzeko ahaleginak —UZEI edo UEUk, adbz.— arras sentido diferentea dute, praxi diterentea daramate eta elkar osatzen duten adina, elkarrekin teinkan dabilta. Bide bakoitzak bere dinamika desarroilatu du. Eta, desarroiloarekin, eginkizun bakoitza autonomizatu egin da, bere gorputza hartu du, bere berezitasuna indartu, eta berezitasunaren, autonomiaren, ezagutza esijitzen du.

Inork bere poesigintza (euskarazkoa) abertzaletasunaren izenean legitimatu nahi izatea, esate baterako, edo bere poesiarekin larre hizkuntza izan dena noranahikoa bihurtu nahi izatea, edo «euskara lantzearren» idaztea, etc. egun konprentzio askorik aurkituko ez luketen gauzak lirateke. Euskal idazlea idazle bihurtu duten motibazioak, askotan maila hortakoxeak dira oraindik ere (2), baina idaztea bera bere objektuaren aldetik legitima dadila, esijitzen da.

Oraindik *Pizkundia*-ren bultzadatik ari garenez, desarroiko eta diferentziapen prozesu bat ari dela gertatzen, ohartu behar da, eskematikoki hiru etapatan bana dezakeguna:

(1) Bestelako diferentziak saio bion artean ez dago noski seinalatu beharrik: Mitxelenak euskal literaturaren etorkizunari begiratzen dio, Krutwigek euskararen desarroiloari zientzia eta teknika alorretan. Krutwigentzat «hizkuntza baten egokera soziologikoaren iujatzeko themako prosa importantena da; haur da poetikoa ezten prosa zein mugataraino hedatu den iakiea». Beraz, «Okzitaniako hizkuntza Kultur modernoaren hizkuntza bat denz iujatzeko Mistralek baino gehiago teknikalariet eta natur-iakintzalariek egin dezaket». Mitxelena ez da hauzi horretan ezertarako sartzen (badirudi ere, hizkuntza baten sozialki goiituzeko literaturaren ala zientziaren inportantzia gehiago kontu horretan, Krutwigek berak beste eritzi batzuk aldarrikatzen dituela azken aldian). Baina, diferentzion azpitik eta, barnean, «euskararen arazoa» da saio bion funtsa dagiena, batetan euskal literatura moderno («kaletar») baten alderditik, bestean «herri ttipien hizkuntzen kulturduintzearen» alderditik begiztatzen den arren arazo hura.

(2) Euskal idazleen motibazioez, euskaraz iharduteko, ik. J. M. Torrealdai, *Euskal Idazleak Gaur*, 1977, 144 eta hur.

1. Euskararen arazoa arazo politiko gisa.
2. Euskararen arazoa arazo kultural gisa (euskararen desarroilo intrinsekoa).
3. Euskararen arazoa eta literaturaren arazo espezifikoa.

Hasiera batetan, euskararen arazoa kausa intrinsekoek ala extrinsekoek probokatu ote duten, hauzia daukagu («Unamuno eta euskara» esan genezakeena). Abertzaleek —euskararen arduraren abertzaleen esku geratu bait da— euskararen egoera gaitzak kausa extrinsekoak dituela sinesturik, euskara politikak salbatuko duela, espero dute. Arana Goiriren esaldi batzuk, sentido honetan, nahikoa eta gehiegi errepikatuak izan dira gure artean, aldebakarkiegi batez ere. Aldi honetan, planteamendu politiko batetan planteatzen da euskararen arazoa, sentimentu edo konzientzia politikoa da euskararen eragile (Lauaxetak garbi asko azaldu ziguna), euskararen sostengua JEL-PNV da argi eta garbi.

Bigarren aldi batetan, abertzaleen (?) aurkako euskalzaleen erreakzio batek jarraitzen du: «JEL-alderdia izan da abertzaletasunaren arrotia, baita euskararen illobia ere», bota zuen gogorki EUZKO GOGOIA-k (1954), makina bat jende minduko zuen esaldi latza. Hildo beretik, Krutwig, Txillardegia, etab., «abertzaleen» oso kritiko ibili dira, abertzaletasunak —arrazo eta, destakatuz— euskara politikari, folklokeriari, etab. sakrifikatu omen ziolako (3). Gutako gehienok, gerra ondokook, fase honetan haziak gara. Aldi honetan euskararen arazoa, euskararen behar duen desarroiko intrinsekoaren arazo bezala ikusiko da: euskara kaletartu behar da, kultur tresna bihurtu, batu, standardizatu, etc. Politikarekiko lotura ez da hain inmediatea. Hobeki esan, euskararen arazoan, problema politikoa eta problema kulturala bereziz joango dira, eta frankismoa luzatu hala eta euskal kultur organizazioak (aldizkariak, ikastolak, etab.) agerian indartuz joan hala, erakunde politikoak, aldiz, ezkutuan (eta politikak borroka harmatuaren metodoetara jo zuenetik aurrera batez ere), politik arazoa eta euskararen arazoa geroz eta gehiago diferentziatuko dira praksian.

Kanbio honen sustraiak eta betekizunak ulertzeko, egoera politikoaren kanbioa behar da gogoan izan: abertzaletasuna, indar politiko organizatu gisa, militarri derrotaturik eta persegiturik dago, era-

(3) Ik., adb., F. Sarrailh de Ihartza, *Vasconia*, 1962, 25: «Lamentablemente el nacionalismo jeltzide y su apéndice llamado Acción Nacionalista Vasca, no dieron nunca a la lengua vasca la importancia que ésta se merecía... Su infame conducta con respecto del euskera es tal, que han llegado los seguidores del nacionalismo jeltzide a convertirse en los más abominables enemigos de la lengua vasca», etab.

kunde politikoen eragin ageriko bat ez da posible kultur lanaren gain. Euskararen borroka, borroka politikotik aparte organizatu beharko da eta erakunde politikoetatik aparte sortuko ditu bere tresnak eta erakundeak. Gero, kultur mogimenduak bere dinamika desarroilatuko du. Dinamikarekin, bere problema propioak aurkituko ditu (euskara batu beharrarena bereberki). Eta, azken finean, politikak, euskararen arazoan, mila modutan zerikusirik baduen arren oraindik, JEL-PNV beste euskalzalerik apenas zegoen garaian baino beste sendo eta modu batetan da honez gero.

Aldi honetan, frankismoaren aroan, arazo politikoa eta euskararen arazoa diferentziatu badira ere, poesiaren arazoa, nobelaren arazoa, ikastolaren eta alfabetatzearen arazoa, etab., berez franko desberdinak izan arren, euskararen arazoan englobatu izan dira orokarki. Aski konprenigarria bait da, situazioa gogoan izanez gero. Halare, ikus eta jokabide horiek apenas dira konprenigarri baino gutxiago arriskugarri, haundia bait da, konplexo gutzia azkenean linguistikara bihurtzeko edo, behintzat, kulturgintzaren barruan literaturgintzari dagokion autonomia eta berezitasuna ahazteko, arriskua. Gaitz hori, ikerketa literarien arloan batik-bat, aspalditxo salatu zuen Sarasolak (4). Baina egunotan goritu dela problema hori, ematen du, hasarreak sortzeraino: kulturgintzaren barruan, literaturgintza bere buruaren konzientzia berezitara iritsi eta estatutu berezi bat esijitzen hasi denean. *Panpin Ustela*-n «zeren literaturak bai bait du bere dinamika propioa eta berezia» irakurtzen badugu, textuinguru honetan ulertzen da, hori ez dela, lehenengotik dirudien pellokeritxoa, protesta bizia baino.

Literaturak, geroari begira, daukan problema hau, orain arte gure belaunaldiaren enpeinu haundiena izan denaren barrutik sortzen da, hain zuzen: euskara —hizkuntza zein literatura— baserriz, elizaz, barnetasunez eta «euskaltasun» jatorrez beterik zegoen iraganaldiko marjinaziotik ateratzea, izan da gure enpeinu nagusia. Euskara moderno bat. Literatura moderno bat. Gerra ondoko belaunaldiak hori zuen lehenengo hautsi behartako marjinazioa, bai euskararentzat eta bai euskal literaturarentzat. Agertu zen Txillardegiren lehen nobela eta «giro urbano batez inguraturik aurkitzen garelara» ospatzen zen, —*Garoa*-tik urrun! Agertu zen Arestiren lehen poesia liburua eta

(4) Euskal estudioen barnean, hizkuntzak eta literaturak sail bakarra osatu dute oraindeino eta euskerazko liburuak batez ere hizkuntzaren estudioen lagungarritzat hartu izan dira. Horrela, obra horien estudio literarioa, estudio linguistikoa egiten zuten hizkuntzalari eta euskaltzale berberak egiten zuten, berez ez zegokien eginkizun batetan sartzen zirelarik», I. Sarasola, *Euskal Literaturaren Historia*, 1971, 3.

Arestiren poemetako gizona tranbian dabilela, eskertzen genuen, —eta ez artzain! Fase bat zen. Beharrezkoa. Oraindik bukatu ez duguna. Euskal literaturak espansio hori behar zuen (eta behar du oraindik), nahitaez, aurrera irtetzekotan, hots, iraganaldiaren reproduzio huts ez bihurtzekotan. Fase hori ez da bukatu. Oraindik ere euskal literaturak —*literaturak*, hain zuzen, ez euskarak bakarrik— euskarazko nobela poliziakoa, komikia, etab. beharko ditu. Baina literaturarentzat determinantea azkenean ez da poeta tranbian dabilen ala asto gainean dabilen. Literaturak bere espezifikotasunean zentratu beharko du, egiten hasia den bezala.

Beraz, nik horrela ezaguaraziko nuke oraingo momentua, literaturari gagozkiola: literatura kulturgintza izan den garaitik, literaturgintzaren autonomiara goazela. Hori genuke hirugarren etapa.

Euskal literatura:

kreazio eta instituzionalpen arteko teinkan

Euskararen etorkizuna, euskal literaturaren etorkizuna: problema desberdinak izan arren, bateratsu planteak zitezkeen, joerek, intereseak, eremu bietan bategiten zuten artean. Interesak banatuz gero —elkarren etsai gertatzen ez badira ere— planteamolde diferentek eskatzen ditu bakoitzak.

L. Mitxelena zuzen-zuzen pasa daiteke bere kontsiderazioetan, batere koskarik gabe, literaturaren etorkizunaz hitzgetetik, euskararen etorkizunaz hitzegitera, edo alderantziz. Literaturaren etorkizuna «larre-hizkuntza dena kale-hizkuntza bihurtzean» dago, esaten da; eta, «euskara biziko baldin bada... gure herrietako biziera nahasia euskaraz jarri behar nahi ta ez». Ez dira berezten eta apartatzen, aitzitik, biak hertsiki lotze-lotzen dira, euskararen arazoa eta literaturaren arazoa, sarri, biak arazo berbat direla ematen bait du.

Izan ere, halaxe izan da, nik uste, aurreko fase batetan. Eta etorkizunean ere, zaila egiten da sinestea, bi arazoez ez dutela zeri-kusirik izango.

Halare problema bat badago: joandako urteotan guziotan gure enpeinu biziena izan duguna —euskararen normalpena, instituzionalpena, h.d., batasuna, etab.—, euskara kultur tresna bihurtzea, problema bilakatu da literaturarentzat.

Sekulorun sekulotan, esate baterako, euskara moderno bat finkatu nahi duten ahaleginen korrontetik kanpora dago erabat. Eta orain agertzen ari den kreazio asko, interesgarriena beharbada, entseu estilistikoengatik eta, gramatikaz, metodoz, Euskaltzaindiz eta linguistikaz kargaturik dabilen korronte hari espreski adarra joaz ez-

pada (sintaxia apropos lardaskatuz, esate baterako), arras beste interres batzuekin dator behintzat. *Zergatik bai*-en azalean Saizarbitoriak problemaren erdi-erdian jartzen gaitu: «Hizkuntza eta literatura-ren arteko sintesia benetakoa da Koldo Izagirrek poesiatik prosarako bidaia luzean egiten duena. Saiakera linguistiko bat baita *Zergatik bai*, euskara batuaren asepsiatik salbatzeko eginahaletan tajutua. Hizkuntzaren tekniko bat da, euskara desberdinen sintaxien konparaketa eskaintzen diguna. Baina ez da teknika hutsez inguratzen analisia honetara, eta batez ere, ez da inguratzen gramatikaren inkisidoreen lapitz gorriarekin, literaturgilearen sensibilitatearekin baizik». Eta Aitzin-Solasak, erreakzio modu askori aurrea hartu nahiez agian, alde zurretik abisatzen digu, *Sekulorun sekulotan* liburua «hizkuntzaren onerako eta hizkuntzalarien kabreorako» izan daitekeela.

Lehenago —neurri honetan bederen— ez bezala, gaur, «euskara lantzen» dutenen mundua eta «literatura lantzen» dutenen mundua, bi mundu aparte dira, bata bestearentzat arrotz eta, ez gutxitan, bata bestearekiko mesfidaz beteak.

Hizkuntzaren instituzionalpenaren eta literatur kreazioaren arteko diferentziapen prozesu hau, liburu merkaturaren eredu isladatzen da: 1977ko liburu argitalpenen kopurua partituz, literaturak 21,5 % egiten duela, ikusten dugu; baina hizkuntzalaritzak (gramatika, hiztegi, euskara ikasteko metodo, etab.) 23 %... Salmenta masa neurtu ahal izango bagenu, ainbat nabarmenago agertuko litzaziguke hizkuntzalaritza sailaren nagusitasuna. Saltzen dena *Alfabetatzen*, edo *Euskalduntzen* da. Hiztegiak: dagoeneko Kintanarenak bigarren argitaldia omen darama. Txillardegiren *Euskara batua zertan den*-ek hiru urtetan hiru argitalpen ikusi ditu eta hirurak agortu dira; baina *Huntaz eta Hartaz* hamabost urteren buruan beti ere salgai dago... Txillardegiren nobelak, ordea, erdi bideantsu geratu badira haren beraren hizkuntzalaritzako obren eta saio lanen artean, Autore honengan, beste guztian gertatzen ari dena, egiztatzen da: bi extremo horien artean mogitzen da euskal liburua, hots, literaturaren eta hizkuntzalaritzaren artean.

Euskararen instituzionalpena, bera da aski problema eta mereziko luke, literaturazaleei aspergarri gertatzen ari bazaie ere, bera den problema bezala ikustea, ez problema linguistiko edo politiko gisa soil, literaturarekiko erreferentzia ahaztu gabe baizik. Hain zuzen literatur produkzioaren normaltasunerako oinarri bezala ikusten bai dugu euskararen instituzionalpena.

Zeri esaten diogu instituzionalpena? Hitza bera, urte bat edo bi da, dirudienez, agertu zela. Baina joandako urteon bidearen jarraian etorri da.

Letretara 50.gn urteetan heldu zen belaunaldiak, «ghetto»tik irten nahi zuen. Haren ahalegina, hizkuntza kultur mailara jasotzea, izan da. Euskara kultur tresna bihurtu. Hau da, Krutwigek hola formulatu du, «Statu-nazionen monopolismua» hautsi, kultur tresna gisa, «Statuaren hizkuntza ofizial bakharra»k balio bait zuen, ez bestek. Gure belaunaldiak hor ikusi du bere eginkizun nagusia. Horregatixe, euskararen batasuna, standardizapena, problema larriak izan dira, berak larrien-larrienak. «Hizkuntza batek egiazko kultur-hizkuntza bilhaka ledintzat, literatur hizkuntzaren forma unifikatua ukhan behar du», aldez aurretik deklaratu zuen Krutwigek. Euskara «kulturduntzeak» ez du esan nahi, halare, elite baten tresna sofistika-tu bihurtzea. Alderantziz, kulturtasunak funtsean ez du normaltasuna besterik adierazten, horregatik eskatzen du batasuna, ez batua eta ez normala den hizkuntza honetan. Mitxelenarekin, euskara «kaletartu» behar dela, esango da. Krutwigek, aldiz:

Landu gaberik legoken hizkuntza batetaz gauetarik goizetarat poeta handi batek izkiria dezake, Okzitaniako hizkuntzan Mistralek egin zuen anzora. Halarik ere, hizkuntza hunen egokera goratzeko importan-tagoa dateke *makhinen konstruzinoari* buruzko traktatu baten publikatzea, hunen egiteko egileak terminologi exaktu bat ukhan behar luke-lako, eta huntaz gainera hunelako traktatu bat beuren ama hizkuntzaz irakur eta huler lezakeien publiko batek egon behar duke. Beraz Okzi-taniako hizkuntza Kultur modernuaren hizkuntza bat denz iujatzeko Mistralek baino gehiago ekhnikalariek eta natur-iakintzalariek egin de-zakete. Gathalanaraz ezta orain dano Mistral bezalako poetarik izan, bainan gathalanara Okzitaniako hizkuntza baino gehiago themako pro-saz erabilirik izan baita, gathalanara Okzitaniako hizkuntza baino asko-zaz gehiago kultur-hizkuntza bilhakatu da, zeren eta Kathaluñako he-rrriaren mueta guztiek beuren hizkuntza egunoroko arazoetan baitarabil-te. Herriko massek eztitute poesiak eta epoak irakurten, are gutiago izki-riatzen. Gehienek periodikoen artikulua, parropiaren orstoak, guthu-nak, fakturak eta iakintzazko prosa (odontologiari buruz, metal-kons-trukzioei buruz edo eta hegaztinen hazidurari buruz) izkiriatzen eta ira-kurten baitute.

Beraz hizkuntzaren bizia irauñarazteko gathazkan gurenda beret-zakoturen du, hizkuntzari datxizkion alhor haukietan garailari izanen denak. Mistral bezalako agerte batek soilik importantzia du, ama-hiz-kuntzaren prestijea Atzerriko Unibersitateetan goratzekotz.

Halakotz, hizkuntzaren biziari buruzko arazoek ikhertzeko eta hiz-kuntza batek, kultur bidearen izaiteko ukhan behar duen evoluzinoaren iujatzeko batez ere, soziologuak erraiten deraukuna konsideratu behar dugu, eta ez poesiaren maitaleak dioskuna. Gure mendeetan lehen baino gehiago, poeten influentziaren obuak hoin handiak ezpaitira, eta hekiek

Fatuaren bidean direkzinoa alda ezpaitezakete. Hizkuntzaren movimendu batek, beure tendentzien erroak spiritu irrazionalean baldin ba ditu, poesian batez ere ekhinen du, bainan movimendu batek beure erroak, indar soziologikoetan eta razionaletan baldin ukhan baditza, batez ere themako prosan ekhinen du.

Gerra ondoan egon zen hasiera berriak, aurretik Pizkundiak bezalaxe, hola moduzko kontsiderazioetatik abiatu behar izan zuen, gero, arrazoi soziologiko eta razional nahiko sinpleengatik, ez bada ere hasi «metal-konstrukzinoei buruz eta hegaztinen hazidurari buruz» idatziz... Egin dena, nola-halako saioa izan da batez ere. Eta instituzionalpena ez da bide honetan datorren azkeneko urratsa besterik. Euskara, euskara kultur hizkuntza bihurtzeko lana bereziki, instituzioen kanpotik desarroilatu da. Instituzioen ez babes, ez ezagumendu, izan du, doi-doi laguntzarik, limosna gisa. Eta horrela egin zitekeen gehiena, egina dagoela, esaten ausartuko nintzateke. Orain instituzioetara sartu beharra dago, desarroiloak aurrera jarraituko badu. Ez egiaz kultur tresnarik eta ez egiaz hizkuntza normalik izan daiteke euskara, bestela, instituzionaldu gabe. Basamortuan egin ziren piramideen antzera, geratuko da, galduta, orain arte egin den guztia, ezertarako aplikazio gabe.

Euskara kultur tresna normal bihurtzeko ahaleginetan, saioaz —zentzu zabalean: artikuluaz, etc.— asko baliatu gara. Agerian daude gure zalantzak. Euskal literatura txiro bada, itzulpenak ugaltzea, proposatzen du POTT-ek: «Itzulpenak, hor dago kakoa». Ez da berria. Orixe, Zaitegi, etc. haien belaualdia itzulpenen bidetik asko saiatu zen. Eta orduan L. Mitxelenak (1960) seinalatzen zuen, «herri oso bat itzultzaile bihurtzeak baditu bere arriskuak» eta, beste orientazioa: kreaioarena. «Itzulpen ugari dugu gure artean euskal literatura hasi zenez geroztik. Itzulpen horiek, ordea, biziro zabaldu eta ugaritu dira azken urteotan. Zorretan gaude lan horretan aritu eta ari direnekin, premiazoak baitziren itzulpenok eta hizkuntza lantzeko bide egokia. —Ez dakit ordea horien balioa goregi jaso ez ote daugegun. Erruz agertzen dira itzulpenak hizkuntza landuetan, baina ez diote itzulpenek ematen literatura bati bere maila, berezko obrek baidetik. Literatura baten loraldietan itzulpenak berez datoz, gorputzaren ondoren isatsa datorren bezala. Isatsa horratik ez da gorputza: ez da gorputzarentzat kalte gehiegirik gabe motz daitekeen eraskin luzea edo laburra besterik» (*Asaba zaharren baratza*). Isatsik gabe, gorputza egin nahita, aldiz, saioa bereziki landu dugu (poesia edo baino gehiago landu dugunik esan gabe: orain arte euskaraz egiten zenaren aldean, esan nahi da, landu dugula bereziki).

Txillardegik (1966) zeritzenez: «Euskal saiakera... jaio-berria dala esan dezakegu. Eta, agertuko danez, ezin zitekean bestela gerta: Euskeraren eta Euskal Herriaren beraren pizkundearekin batera agertu behar baitzuen euskal saiakerak (...).—Saiakeraren jaiotza hizkuntzaren pizkundearen seinalea da; hizkuntzaren pizkundera herriaren beraren zuzpertzearen seinalea dan arabera. Hizkuntzaren piztea eta saiakeraren sortzea elkarrekin doaz. Elkarri lotuak dira sustraie-rik: ezin bata sor bestea gabe» (5). Eta: «Hizkuntza adimenduaren tresna dan aldetik hartzen du saiolariak, eta zaiona besteri adierazten diardu. Hori eginez, literatura haurtzarotik ateratzen da»...

Beraz kontsideraziorik ez zaio falta izan saioari. Baina, zer gertatu da gure saioarekin, ainbeste landu eta gero? Euskal saioa, arrunt, preliterarizat jo genezake. Besteak beste, euskara trebatzen gehiegi saiatu beharra zuen. Ez zuen askatasunik inondik. Nagusi baino tresnaren —hizkuntzaren— esklaboago ibili da beti. Eskolaren ordezkotza bete beharrean ere aurkitu da. Gorabehera sozial eta politikoetan sartu beharrean. Eta, inportanteagoa: apenas da posible, beste dena normal ez dagoen artean, saioak desarroilo normalik izatea. Saioa munstro baten itxuran desarroilatu da. Deforme. Ondorioa izan da, saioa eta tostoia berdintzeratsu heldu gabela. Saioak, itxuraz, prestijioa badu, baina inork ezin du agoantatu. Ondorioa, beraz, saioak —barruti literari espezifiko gisa— ez duela ezer irabazi eta alboko barruti literarietara dena galdu dutela, *Oh Euzkadi*-k arrazoi badu behintzat: «Hemen publikoa aspertzen ez baduzu ez baitzaitu inork serio hartzen».

Bi saio mota berezi beharko genuke, euskal saioan batez ere: saio laburra, propioki saioa, eta saioa liburua. Lehenengoak aldizkarietan edo bildumetan du bere lekua; bigarrenak, bistan da, liburuan. Gure artean, historiak halaxe nahi izan du, aldizkarien aro bat eta liburuaren aro bat, elkarren parean ez, baina bata bestearen segidan bezala, desarroilatu dira, aldizkarietara —Euzko Gogoa, Egan, Jakin— mututu edo egin behar izan eta gero bait dator editorialtxo berrien aroa —Lur, Gero, Etor, Jakin, etab.—, saio liburua hortakoz.

Euskal saioa, ba, partikularra da. Nahasia: inbestigazio, polemika, propaganda, zientzia eta panfletismo, dena piska bat. Baina saio honek, saio akademikoena baino hobeto betetzen zuen apika, euskara kultur tresna normal bihurtzeko xedea.

(5) Txillardegik, *Saiakera eta Hizkuntzen Pizkundera*, in «Salvatore Mitxelena», *JAKIN* 1970, 57.

Saioaren gorak kritika modu hanitz izan du eta bat, hain zuzen, espontaneitatea, kreatibitatea, itotzen zituela euskal literaturan (kreatibitatea beste kausa batzuek itotzen zutela, saioan bertan ere, esango nuke nik neuk). 72an jadanik Haranburu Altunak saioaren nagusitasuna salatzen zuen, ia publikatzen zen dena saioa omen zelako, kreatibitateari lekurik utzi gabe. Eta «prestijioaren arauera jotzen dugu zenbait liburu argitaratzekoan. Salbo garela uste dugu, liburu mamitsu eta konplikatuak argitaratuz gero». Bost urte geroago, saioak beste literatur mota oro menderatzen duela, uste du «Ikatzak» oraindik: «Nahiz eta euskal literaturan gaur egun 'saio liburuen' distira batetan bizi, literaturazko liburuak oso beharrezkoak ditugu: zifratara bagoaz euskal literatura (nobela, poesia eta teatrogintzaren produzioa) proportzionalki urria da, eta editorialek, beharbada, faktore hori ez dute behar haina balioztatzen. Poesiaren eginkizuna, bere lekuan, funtsezkoa da; euskarak sorketaz edo kreatibitateaz ez dezake bizia baino irabaz» (6).

Literaturaren «krisia» dela ta

Aspaldian entzuten dira lantu horiek: euskarazko letragintzan, saioak beste produkzio guztia baztertu omen duen, sorketa ito omen duen, sentidoan. Egunotantxe, esate baterako, Lasagabasterrek hola idatzi digu:

La última Feria del Libro Vasco en Donostia ha sido, a mi entender, un dato significativo y desalentador: el alarmante desnivel entre el libro específicamente literario y prácticamente inexistente en euskara, y el libro científico, histórico, documental; entre la escritura del «intelectual» —historiador, cronista, político...— y la del poeta, entre una palabra «transitiva», ordenada directa e inmediatamente a decir la realidad, e intentar transformarla, y una palabra «intransitiva», autónoma, sin referente inmediato en lo real, como es la palabra literaria, pero no por ello «intrascentente».

Las urgencias del momento socio-político hacen ineludiblemente necesaria esa palabra que expresa directamente lo real, y lo hace historia, denuncia, ciencia. Pero no podemos olvidar esa otra palabra, popular o culta, versificada o llana, donde subsiste y late «la voz antigua de la tierra», como hermosamente se dice en el reto del poeta León Felipe al dictador Franco, esa palabra necesaria para «alimentar el fuego» y «recoger el trigo», es decir, para vivir, que es la palabra de los artistas, de los poetas.

Parece como si la palabra cuya operatividad sobre lo real, cuya rentabilidad social o política no es inmediatamente verificable fuera un

(6) Ikatzaren sarrera, in L. M. Mujika, *Hitzak ebakitzean*, 1976, 15.

pasatiempo que a los vascos, abocados con dramática urgencia a retos históricos decisivos para nuestra propia identidad colectiva, no nos estuviera permitido; como si los poetas —los literatos— fueran a trivializar un espacio que sólo pudiera ser serio y eficazmente ocupado por los historiadores, los cronistas de la actualidad, los sociólogos, los políticos.

Creo sinceramente que los literatos —prosistas o poetas, lo mismo da— apenas tienen hoy espacio en nuestras expectativas socio-culturales colectivas. Y ello me parece no sólo lamentable, sino también peligroso. El arte, la literatura en este caso, es el hogar del sentido que hace habitable la existencia colectiva, con su memoria y sus utopías, su historia y sus mitos, sus creencias y experiencias.

En esta inflación de palabra «transitiva» —sospechosamente transitiva, tantas veces— razones de simple ecología cultural hacen necesaria la palabra del literato; para recuperar el sentido de tantas cosas, para no perder de vista la complejidad y la profundidad de lo real; para seguir respirando, sencillamente (7).

«Egin» publikatzen ari den artikulu zerrenda hortan bertan, I. Sarasola are ilunago ageri da:

Izan ere, badirudi, argitaragai baino argitaratzaile gehiago dugun garai bitxi hauetan, literatoren batek kalitate gutxienezkoa duen zerbait egiten duenean bere atzetik dituela euskal editore guztiak, ea nork bereganatuko duen pieza arraro hori. Gehiago argitaratzen ez bada, beraz, gehiago egiten ez delako da... (8).

Momentu honetantxe, nik neuk dauzkat, nire gelan, bost orijinal, Autore berrienak bostak, hiru nobelazko eta poesiako bi, beren egileek, ni batere bila ibili gabe, eritzi eske omen, baina batez ere argitaratzeko laguntza eske, nik uste, ekarri dizkidatenak. Ez dut esango, denak urre gorria direnik. Baina I. Zabaletaren bi poemak adibidez, lehenbailehen argitatzea merezi dutenak, bai, badira. Beraz, nik, nire esperantzia laburretik, ezin baitets nezake Sarasolaren inpresioa. Nire inpresioa zuzen-zuzen alderantzizkoa bait da: Autoreak, gazteak batez ere, ezer argitaratzeko, problema haundiekin dabiltzala oraindik eta, problema haundiekin, kreaizozkoak omen diren obra horietxek publikatzeko batez ere. Zer besterik adierazten du, bestela, Yokin Apalategik edo Paulo Iztuetak, esate baterako, beren poesiak, aspaldi egindakoak, beste barruti batzuetan lanean arituz izen bat egin eta gero bakarrik publikatu ahal izateak? Nire inpresioa da, idazleen eta argitaletxeen artean konfiantza gehiegirik ez dagoela; obra asko, idatzi eta urte mordora iristen dela publikaziora (behar-

(7) J. M. Lasagabaster, *La creación literaria, un lujo necesario*, Egin 328, 1978, urriak 21, or. 14.

(8) I. Sarasola, *Sariketak, literaturgintzaren erakusgarri*, Egin 321, 1978, urriak 13.

bada ez da okerrena hori); Autore gazteen artean bereberki, ikaragarriko lotsa dagoela ezer publikatzeko. Eta inpresio hau ez dut hartu hilargiari begira nengoela: hemen nagoen lau ilabete hutsetan, ez dakit zenbait jende gazte etorri zaidan, publikazioetarako laguntza eske, aldizkari literari huts bat sortzeko premia aipatuz eta kolaboratu nahiez, etc. Kreazioa gehiago destakutzen ez bada, nire inpresioa ez da, gogoia eta kapazitatea falta direnik, beste dena falta dela baino, kreziotik publikaziora iristeko. Baina inpresioek erraz engaina lezaketekete, ez du merezi hortik jarraitzea. Bakarrik, inpresioa inpresioari kontrastzeko. Nolanahi ere, beste inpresioa da zabalduena, HORDAGO-k klasikoen berrargitalpena hasi dueneko POTT-en komentarioak ere ageri digunez:

HORDAGO editorialeak ere aurkitu du zer argitara. Klasikoak, noski gure klasiko beldurgarriak... Egunkarietan «maisu zaharrak herri-tartzeko asmoz» egiten direla argitalpenak irakurri dugu. Mina ere jarri zaigu koskorretan hainbeste algaraz.

Baina esan egia, ba al dago inor horrelakorik sinesten duenik?... ta-maina honetako gezurrak sinesten al ditu inork?... hau al da gaurko euskaldunen dinamika kulturala?

Eta beldugarriena zer da, HORDAGOk ezinbestean argitaratzen dituela klasikoak, besterik ez dagokeelako, eta ez bere kapritxoz.

Euskal Herriko intelektual ofizialak badute nahiko lan euskal kulturaren globoa puztutzen.

ITZULPENAK, hor dago kakoa. Jatorriz euskaldunak diren testorik ez badago (kalitate minimoa dutenak) zergatik ez dira itzultzen beste hizkuntzetatik zergatik ene maiteok?

Ez gutxi eta ez gaitz esteko asmorik izan dut nik inoiz kreazioa —subliteratura hutsa omen litzatekeen beste letra industria baten aparatoetatik aparte— eta gutxiago, B. Atxagak behin *cum ira et odio* kapitulu hortan eman zizkidan lezio gogorak eman izan eta gero. Baina zer da inpresio ilun eta apokaliptiko askoren atzean zinez dagoena? Ikatzak aipatzen zituen zifrak, benetan? Egia al da, esate baterako, literatur kreaziozko obra produkzioerik ez dagoela apenas, edo bestelako produkzioaren aldean, saioaren aldean esate baterako, atzetik dabilela?

Ez dakit zer gabiltzan urteotan eta inpresio ilunen batzuk nondik sortzen ari diren. J. M. Torrealdayek, euskal literatura zifratan eta zifra bitartez ikusi ohi duenak, 1977ko liburugintza aztertu zuelarik, honela hasten zuen bere azalpena:

Atzera egin ote du 1977ean euskarazko liburugintzak?

Ihazko liburugintza edo euskal liburuaren produkzioa dela eta mintzatu direnek oro pesimismotik jo dute. Librugintzak behera egin duela

esan dute, batzurentzat kalitatez ere bai, eta denentzat kantitatez. Neu ere antzekorik esana naiz.

Baina liburu guzien zerrenda egiterakoan, nere ustearen ustelaz jabetu naiz. 1977eko 150en bat liburu eta liburuxka kontabilizatu ahal izan ditut nik, eta segur ez ditudala denak bildu. Ez gabiltza, beraz, aurreko urteetako produkzioaren azpitik.

Zenbakiak gorabehera, ihaz liburu gutiago atera denaren inpresioa dugu denok, hori da egia. Zer gertatzen da? Inpresio horrek izan behar du oinharirik (9).

Liburu produkzioa sailka azaltzen digun tokian, ikusten da, produkzio guztiaren 21,5 ehuneko literaturari dagokiola, 8,5 % besterik ez erlijoari, 7,5 historiari: literaturaren atzetik horiek bait datoz.

1977an hizkuntzalaritzak hartzen dio aurrea literaturari, 23 %-rekin: gramatika, euskara ikasteko metodo, hiztegi, etab. Horiei beste irakaskuntza liburuak gaineratuz gero (textuak, irakurgaiak, etab.) 28 %-ra iritsiko ginatoko gainera.

70 aldeko «editorialeen boom (erlatibo)» haren inpresiopean edo, askotan uste denaren kontra, saioa ez da inola ere produkzio eskalaren gailurrean ageri 77ko liburugintzan. (Nola eta orain ez dugun gramatika bat saio deklaratzeko!). Eta lehenagotik dator, saioaren hegaldi laburrean, gainbehera. «1975etik edo hasita euskal liburugintzak duen datu berri berezietakoa hau da: irakaskuntzarako, haur eta gaztetxoek irakurketarako, euskara ikasteko pentsaturiko liburuak direla denetan nagusi; liburu funtzionalak, beraz, kultur premiei hurbilagotik atxekiak. Liburugintza mota honetara lerratu dira editorialerik gehienak. Saioen urre-garaia joana da; krisian daude saioak» (10).

Torrealdyek, ezin zuzenagō, inpresioak eta zenbakiak ez nahasteko, eskatzen du. Eta esplikatzen, inpresioak, bestelakoak baldin badira, horiek ere ez bait dira sortzen arrazoiren bat gabe.

Urtero egiten duen legez, Torrealdyek egina du JAKIN-erako aurtengo —78— liburugintzaren azterketa ere, laster argitarako dena. Eta horra harrigarria: literatur sailean 77an 32 liburu bazegoen, 78an, kreazioa moteldu egin omen delarik, entzuten ari garenez, halarre 51 liburu dago: eta proportzioak ere literaturaren alde altxatu dira, urteko guztiaren 30 % ematen bait du. Hizkuntzalaritzak, aldiz, 78an ez du 12,5 % besterik ematen berriro.

(9) J. M. Torrealdy, *Euskal liburugintza 1977ean*, JAKIN 5, 1978, 103.

(10) J. M. Torrealdy, *Euskal liburugintza 1976an*, JAKIN 1, 1977, 124.

Ez du merezi ni hemen zifrak ateratzen ibiltzea, estudio horiek ikusi nahi ditzanak, badauka nora joan eta, xehekiago begiratzeko moduan. Bakarrik, oraingo euskal literaturaz ari garenean, ez gara 77 edo 78koaz soil ari, noski, eta epe luzeagotan ikusi behar dugu, zertan garen. Horra, ba: 1960-1975 artean literaturak liburu produkzio guztiaren 41,54 % ematen du, bigarren tokian erlijioak darraikala 15,55 % rekin. Zifrak horiek dira. Ez saioa eta ez hizkuntzalaritza urreratu ere egiten zaizkio literaturari.

Literaturgintzaren krisirik baldin badago, kantitatean behintzat ez da.

Literaturgintzaren martxa ikusteko, hamar urte bitarteko epea hartuz, resultaduok ateratzen ditugu:

– 67an 19 liburu literari 77an 32 liburu literari	68an 21 liburu literari 78an 57 liburu literari
--	--

– 67an 19, 68an 21 (bi gehiago) 77an 32, 78an 57 (hogeitabost gehiago)

Begirada bat, eskematikoki, azken urteotako literaturgintzan nola banatzen diren sail diferenteak:

	60	61	62	63	64	65	66	67	68	69	70	71	72	73	74	75	76	77	78
Poesia	4	2	4	3	3	3	5	6	5	12	6	7	12	8	8	10	5	8	13
Nobela	2	1	4	1	2	—	3	2	2	5	7	2	4	9	1	5	5	5	14
Ipuin/narratiba ..	1	1	2	3	—	5	2	2	3	2	1	4	1	5	2	3	2	2	11
Teatro.....	2	6	5	4	5	5	2	3	2	2	5	1	—	7	3	3	2	4	3

Puntu hau bukatzeko, estudio eta kritika literariez ohartxo bat: literatur barrutian, estudio eta kritika literarien falta salatu ohi da, orobat, alde guztietan. Hori ez da oraingoa, ezta Euskal Herrikoa bakarrik ere. Eta bestearen erantzun hura ere ez da oraingoa: literatoak beti kexu izaten direla, kritikorik ez dagoela, baina aldi berean ez dutela enbarazorik batere izaten, gustatzen ez zaizkien kritikoak inesistentetzat uzteko beste gabe. Euskal Herrian ez dagoena, literatoei berei gustatzen zaizkien kritikoak eta azterkariak, ote diren, har daiteke, lantu hari Torrealdyren zifrak alderatuz: azterketa, kritika eta estudio literarien liburuak ez bait dira besteak baino gutxiago.

	67	68	77	78
Azt/krit/hist	7	6	9	10
Bersoak	—	1	4	4
Teatro	3	2	4	3
Nobela	2	2	5	14
ipu/narrat.	2	3	2	11
Poesia	6	5	8	13
Herri lit. (folkl.).....	1	2	—	2

Literaturaren problema, denok dakigu, jakin uste dugu behintzat, zifra batzuek axal-axaletik axal diezaguketena baino besterik da. Bai, konforme. Baina, orduan, bila dezagun, dagoen tokian, eta ez beti esaten gabiltzan afirmazioenetan: literatur produktiorik ez dagoela, edo kritikarik ez dagoela, etab. Egote hutsean baino beste nonbait daude problemak, duda gabe.

Literaturaren esistentzia zaila

1977ak urte seinalagarria dirudi euskal letren eboluzioan, biraketa baten sintomak ageri ditu eta. 77an, saioa, aurreko urteetan sekulako gora ibili duena, eroria da. Harrigarria ere izan da saio bolada hauxe: 70-75 urteak, ikastoletarako, alfabetakuntzarako, etab. premia ikaragarrien urteak ziren. Jende pila genuen eremu horietan, hortxe zegoen liburu eta laguntza eskea, inon egotekotan. Halare barruti horiek abandonaturik egon dira (J. F. Setienek eta gutxi batzuk egin zuten lana salbu). Saioa, saio mota zailena eta gogorra hain zuen ere, zebilen nagusi. Gero saioak behera egin du. Eta, bat-batean, 77an, hizkuntzalaritzak liburu produkzio guztiko 23 % egiten digu, bera nagusi altxatu delarik; 28 % irakaskuntza liburu guztiek osatzen dutena. 78an boom hori berriro freinatu da, 12,5 % tara jaitsi bait da hizkuntzalaritzaren parte aurtan. Erantsi beharra dago, boom horrek, produkzioan ez bada, merkatuan berdintsu jarraitzen duela, itxura dagoenez.

Besterik ere badago: UZEI (Unibertsitat Zerbitzuetarako Euskal Institutua), esate baterako, 77an sortu zen. «Eusko Ikaskuntza» berriro hasi zen pausoak ematen berreratzeko. Alfabetatze kanpainen koordinakundea ere urte hortan sortu zen Euskaltzaindia baitan («Alfabetatze Euskalduntze Batzordea»). UEU Iruinean burutu zen. Hemen, EUTG-en, euskal filologia estudioak martxan jarri ziren... Kintanaren *Euskal Hiztegi Modernoa* agertu zen, ondo-ondotik L. M. Mujikarena zetorkiola eta I. Sarasolaren *Euskal Hiztegi arauemilea* ere orduan hasi zitzaigun, etab. etab. Eta 77an sortu zen DEIA, segidan EGIN, etab., horiek ere izan bait dute zerikusirik euskal kulturari.

Zer gertatu da? 77 inguruan, hor nonbait, gorputz hartu du orain arteko prozesuak, nolabait esateko. Konsakratu eta ofizialdu egin dela euskal gizartean, esan genezake (76an Euskaltzaindiak «Real» titulua hartu du). Eta hizkuntzari —normalpenari, instituzionalpenari— begiratzen dion alderdia, desproporzionalki indartsu ageri da, gorputz haundi bat, literaturari begiratu dion alderdiaren parean. Literatur produkzioak ez du bere aparato bat, hizkuntzaren normalpenak beretzat eskuratu duena bezalakoa.

Guzti honek funtsean ez du besterik adierazten, euskararen situazioa piska bat normalduz doala besterik. Textuak eta, edozein hizkuntzatan ere, lirika liburu bat baino gehiago saltzen dira apika. Askotan, izan ere, euskara ikasi egiten dela, pentsatzen dugu, beste hizkuntzak ere ikasiko ez balira bezala berdin-berdin. Beste edozein hizkuntzatan ez dira gramatikak, hiztegiak, irakurgaiak, etab. euskaraz baino negozio ttipiagoa, haietan negozio horren sostengua obligaziozko eskola bada ere, eta euskaraz borondatezko eskola zaila. «Hizkuntzalaritzaren» aparatoa, tresneria eta makineria, edozein hizkuntzatan dago literaturarena baino gorpuztuago eta organizatuagorik. Gertatzen dena, da, hemen hizkuntzalaritza eta literatura elkarrekin lehiaketa batetan bezala ageri direla, beta besterekin borrokan bezala, aurretik daukagun historiagatik, han biok bat egin bait zuten. Eta biok banatu edo direnean, literatura marjinatu egin den inpresioa sortzen da, hizkuntzalaritza —utilitarismoa esaten dena— nagusituz.

De fakto literatura nolabaiteko marjinazio batetan erori dela, ez dago ukatzerik. Aldean, esistentzia apala darama euskal literaturak eta ez merkatuan bakarrik:

— Oraindik ere euskararen arazoak —normalpenak, estandarpenak, zabalakundeak— gure interes eta ardura guztia akaparatu du, literaturarena, «lujo necesario» hori, zabartuz.

- Politikaren gorak ere, literaturaren prestijioa beheratu digu apika. Pentsatu ere ez dirudi egin litekeenik, orain, poesia liburu batek, 64ean *Harri eta Herri*-k izan zuen arrakasta hura izatea. Baina denok dakigu, arrakasta hura ez zuela liburuaren literaritasunak bakarrik sortu. Literaturaren egoera pribilejiatu bat zen hura. Gaur egun ez dirudi posible, poesiak holako signifikazio sozial, politikorik izatea. Hau da, 64ean literaturak bete zitzakeen eremuak, orain politikak, historiak, soziologiak, betetzen dituzte.
- Politikaren gaineratze honek badu alderdi bat, euskararen arazoa ere ukitzen duena orokarki, literaturarena ez ezik: zentsura erori denean, bestela ezin zitezkeen liburuak agertu dira pilaka. Eta erdaraz agertu dira. Horrela, orain, euskal liburuaren azoka bat —Durangokoa, adibidez— gaurkotasan bixi-bixiko «euskal liburu» erdarazkoz josita ageri zaizu aldenik alde, azokazaleen atentzio guztia berenganatuz: *Los batallones de Euskadi* edo *Las fugas de Segovia*-k menderatzen dizute azoka guztia. Liburuok, eta liburuon zabalkundearen erabiltzen den agresibitateak, zirkulaziotik kanpora uzten digute euskal literatura.
- Gehiago dago: egoera berrian, zenbait idazle aldendu egin da literaturatik bestelako lanetara. Joandako urteotan, euskeraren normalpenetarako borrokan aritu gara. Normaltasunak, instituzionalpenak, euskara prentsan, irakaskuntzan, bizitza publikoan, normal erabiltzea eskatzen zuen. Euskararen instituzionalpena bizitza publikoan. Horra, bada: hasi da instituzionalpen hori. Leku guzti horietan euskara erabiltzeko posibilitateak sortu dira, beraz, lanpostuak eta alogerak sortu dira —literaturak ez duena— eta horra Andu Lertxundi, nobelista, periodismoan ari da; berdin Arantza Urretavizcaya, poetisa; S. Garmendia, teatrogilea, Kontseilu Nagusiko itzultzaile; I. Sarasola, narratzaile eta poeta, hiztegitintzan enplegatzen da; Mikel Lasa, poeta, Aurrezki Kutxaren batetan edo, etab., etab. Izugarritzko sakeoa egon da literatoen eremuan. Erantsi behar da, lehen, alderantziz, beste eremuetako zailtasunak literaturaren abantaila bihur zitezkeela, bestela inoiz literaturan sartu izango ez zen jendea literaturara ekarriz: M. Onaindia, adibidez, nobelista gertatu zen gartzelan. Zer esanik ez, holakoak atzera galdu direla literaturarako.

Nabarmen dago, alde guztietatik eta maila guztietan, reajuste bat egiten ari dela barren-barrendik euskal gizartea —politiko eta sozialki batez ere— eta reajuste honek sortzen dituen lubiziek, zilipurdiak, itzul-irauliek eta gainazpiraketa nahasteriek, literatur eremua ere gogor astintzen digutela. Non dagoen euskal literatura, momentu honetan, zail da esatea. Haizeak baretu eta gero ikusiko da.

Baina gorago aipaturiko krisi lantuek badutela arrazoi bat, ikusten da. Momentu honetan euskal gizartea ezagutzen ari den mobilizazio inpresionagarrian, literaturak itsaso zakarreko eltzaurre oskol proberbiala dirudi, larri eta gorri. POTT banda eta euskal literatura identifikatzeko asmorik batere gabe, irakurgarriak iruditzen zaizkit azkeneko POTT-en datozkigun abisuok: «POTT banda desagertze-

ko harrisku gorrian arkitzen da. Liburu dendetan ez diote harrera onik egiten, etekin laburra uzten baitu bere merkean, eta euskaraz idatzita egonik ez baitu serbitzen alfabetatze lanetarako ere; eta jakina, horrela ezin daiteke askorik saldu, euskara ez baitaki inork (ikasten, ordea, jende asko ari da). Liburu banatzaileak ere berdin, lana bakarrik ematen duela gure panfloak, lan asko sartzen dugu aleotan, gehiegi, blaga kristona, haurrentzat egokia ez dena eta beste. Politika subnormalitatearen formatzat hartzen dugunez gero, boikota egiten digute herri honetako iraultzaileek (eta dakizuenetz, herri honetan ia denak dira iraultzaile). Telesforo Monzonen kantak ez zaizkigu zipitzik ere gustatzen, eta etxekoandreak mespreziatu egiten gaituzte. Gure famelietan ez gaituzte ikusi ere nahi, ez baitugu lan segururik, eta ez baikara behar bezala ezkondu. Andregai bat bagenuen, uxu bat bezala hil zitzaigun gaxua»...

Literatura desolaziotik bezala ari zaigu. Marjinatuta, baztertuta, sentituko balitz bezala, basamortuko boza. Literaturan bertan maiz-sarri irakurtzen ari garena da, bolada honetan, literatura inork ez duela irakurtzen, literatura ez zaiola deus axola inori, etab. Euskal idazlea, literatoa, beste garai batzuetan, euskal mogimenduak, kulturazkoak ezezik politikoak ere, bultzatuta, lagunduta, sentitu izan da. Integratuta. Oraingoa bazterrera utzita sentitzen dela, pentsa daiteke.

Jakina, idazle-A, literato-A, esaten dugu eta jeneralizazio haunditxoa da. Txillardegi batek, edo Gandiaga batek, uste dut, bere autokonprentzioari dagokiola, idazle bezala, literato bezala, euskal kulturaren barruan, agian ez dute gaur ere beti izan dutena baino neke gehiagorik. Nolarebait «esplicitatuta» dago literatoaren lekua euskal kulturaren (literatoaren redukzioa euskalzale hutsetara, edo euskararen laguntzailetara, egiteko joera nabarmenez). Badago euskal idazlearen konzepzio eta autokonprentzio tradizional bat, idazletan faktore literari adina abertzale integratu ohi zuena, euskal idazleen beren artean ere guztiz arrunta eta naturala, Torrealdaiyek erakutsi zuenez. Eta horixe da, hain zuzen, aldatzen ari dela, ematen duena: idazlearen autokonprentzioa, konzientzia. Gazte askok, idazteko gogoz ere, problemak dituela, ematen du, idazlearen estatu horretan bere burua ikusteko; idazle gazte zenbaitek ere, espreski diferentziatu nahi lukeela, ematen du, orain arteko idazlearen iruditik. Idazle tipo berri eta diferente bezala ikusten duela bere burua. Literatura egin nahi du eta beste ezer ez. Eta idazle horrek, bere burua orain arteko idazleen aldean diferente erakusten duenak, ez du bere burua integratuta ikusten euskal kulturgintzan, esistentzia zail batetan baizik:

«Guretzat —idatzi du, esate baterako K. Izagirrek *Etiopia* komentatuz—, literaturan literaturzaletasunez [kasu!] hasi ginenontzat... pena handia da berrehunek baino ez irakur gaitzaten», etab. «Euskararen onerako izkribatu nahi izan ez duen lehen, eta erranen nuke, oraingoz nobelagile bakarra» gisa agurtu du harek berak Saizarbitoria, ik. *Ene Jesus-en* Hitzaurrea. Aritzeko modu sintomatikoak.

Belaunaldi honek, idazle tipo berri honek alegia, idazletzaren konzepzio berri bat eta bokazio berri bat ezezik, literaturgintza berri bat errepresentatu nahi du (eta errepresentatzen du, zer duda), literatura berri bat. Literaturaren askatasuna, emanzipazioa erreklamatzeko du. Literatura libre bat esijitzen du: literaturtasunari baizik zor ez zaiona, euskarari laguntzeari edo alfabetatze kanpainetako premiei obligaturik egon gabe. Inolako beste intetzio (extrinseko)-ri obeditzen ez diona, literatura izateko obligazioari bakarrik baizik.

Niretzat hau da, euskal literaturaren kanpoan, azken urteotako fenomeno interesgarriena, gerora begira prometagarriena eta, zenbait aldetatik mingarri gertatzen ari bezaiгу ere, pozgarriena. Euskal literaturaren etorkizuna, duda gabe, hemendik pasatzen da.

Bi problema ikusten dut, halare:

Hau, mogimendu bat baino gehiago —euskal literatura bere atzetik tarraka dezakeena— hasiera bat da oraindik, obra inportanteren batzuk —cfr. Saizarbitoria, B. Atxaga, K. Izagirre, P. Urkizudagoeneko eman dituen arren. Mogimendu bat bihurtzeko, euskal literaturaren aurrerabidean atzera gabeko puntu bat finkatzen duena, agresibitate, atake pertsonal eta burla, manifestu eta panfleto, batzuk baino gehiago beharko da. Lana. Obrak. Alarde egitea, axolagabekezia militante guztiz estudiatu batez, edo beren marjinazioarekin, bitxitasunarekin, ausardiarekin eta ahuleziarekin... fragilitatearekin, koteria sublime goxo-goxoan aritzea, luzarora ez da nahikoa, haitzak astintzeko ederki etorri bada ere. Euskal literaturan, gutxienez Narzisok adina pintatzen dute oraindik Sisifok edo Prometeok. Zer nahi duzu: gure zorigaitza da...

Eta bigarren: euskal kulturaren, zorionez, monokultiboaren garaiak pasa dira, batetik, —beraz, eskola bakarrarenak ere bai; eta, bestetik, euskararen beharkizunek adina esijitzen du, nire ustez, literaturaren autonomiak berak, literatur eremu guztiak beteta egotea, serbituta egotea: h.d., nobela erraz eta sinpletik okasioko agenda-poesiaraino eta saio groteskoraino, nahi bada. Bestela, basamortuan palmondo batek ez du egiten basorik: obra eder pare batek, ohorea salbatuko digu apika, literaturaren normaltasuna ez. Isolazioan, laboratorioan, literatura ez da inoiz produkzio izatera iritsiko. Kreazio

neketsu bat izango da (nekeak, hain zuzen, behar ez liratekeen gauzetan sortuz). Idazlea beti gaurko —eta atzoko— situazioan aurkituko da: hizkuntza arrotz bat estreinatzen ari denaren antzeko situazio estraino horretan. Eta honek badu zerikusirik euskararen egoerarekin (literaturak hizkuntzarekin operatzen du eta hizkuntzaren egoeratik dago): hizkuntzaren usadio barrutiak oso mugatuak diren artean, literatura oso kondizionaturik aurkitzen da. Hori gertatu zitzaion Saizarbitoriari *100 Metro*-n, polizia hitz eragin behar zienean. Ez da posibilitate kontua, gorabehera linguistikoa. Literaria da. Hango poliziaek esaten dituztenak euskaraz esatea ondo erraza zen. Baina arrazoi literariak izan ziren, Saizarbitoria «lehen nobela bilingue» (!) hartara ekarri zutenak, absurdu literari bat baino nahaspila linguistiko bat egitea hobetsiz.

Literaturaren autonomi arazoa (kolorearen autonomi arazoa, etab. lehenago eztabaidatu dira), askatasunaren arazoa bezalaxe, ez dago modu absolutu batetan planteatzerik, kontextuko baldinkizunen arabera baino. Esistitzea, erlazio sistema batetan esistitzea da eta askatasuna (autonomia), erlazio sistema horretan posible den askatasuna baizik ezin izan daiteke. Honek, bestalde, politikan ere agintzen du, askatasuna ez dakit nola konzebitzen dugun herri honetan noizpait akordatu beharko genukeenez. Beti izango dira ume baten askatasuna eta mutilzahar baten askatasuna gauza diferenteak. Literaturaren autonomiak, euskaraz, izan dezakeen errealitatea, ez da izango proklama bero batzuek aseguratuko diotena; hemen literaturak nahitaez daukan erlazio sistemak baldintzaturik egon beharko du. Euskarak, lehen-lehenik, eta sentido herstuenean nahiz zabalean. Euskal idazleen testu asko dago hortaz eta mereziko luke estudio bat egitea, literatoek hizkuntzarekiko izan dituzten erlazioez, sentido literarian hain zuzen. Ikusi ditudan azkeneko aitortzak beren luzean aipatzea zilegi izan bekit, Gandiagarenak in *Uda batez Madri- len*:

Estiloaren arazoa iruditzen zait dena.

Norbere burua oihalean ezartzeko trebetasun gorabeherarena (...).

Egañarekin [pintore bat] gaur izan dudana solasean gai honen inguruan ihardun dut: Bakoitzak norbere sentipenari dagokion hizkuntza aurkitu ala idazle euskaldunak ere badu arrisku hori horratik, GEROn, GAROAneta, landu izan den hizkuntzatik irten nahi ez balu, esaterako (...). Literatur-egilearen lana armiarmaren lanaren antzekoa da: barruan duen saregaia, sortzeko zeri-heldu gehiago eskaintzen dute euskarak baino. Baina egin dako hizkera erraz eta edonorenez aritzeko arrisku gehiago ere bai. Idazle euskaldunak ere badu arrisku hori horratik, GEROn, GAROAneta, landu izan den hizkuntzatik irten nahi ez balu, esaterako (...). Literatur-egilearen lana armiarmaren lanaren antzekoa da: barruan duen saregaia,

hizkuntza gaien ugaritasuna, nahiz handia nahiz txikia dela, bazterren, arloaren, norbere asmoaren harira erabili behar du. Saregaia bat bera delarik, sarekera bakoitzak asmatu behar du norbere izate, eskabide, aiurri ta eginkizuni dagokion eratarra. Pintore aberatsak —gazteleak adibidez— pintura-gai edo hitzen ugaritasun handia du gure aldean, oihal hobeak eros ditzake, marku ederragoak. Gu urriago aritzera behar turik gaude. Gure eskuarteko pintura ontziak tiki dira eta ez asko: oihalak edo temak ehundu gabe dauzkagu eta markuak edo literatur-jeneroak oraindik zerratzeko. Hala ere baliakizun eskas horik nahikoa ditugu benetako arte-lan artailuak egiteko. Besteek konpresoraz eta tresneria teknikoagoz lantzen duten harria, guk lanabes apalagoz landu behar dugu, baina guk ere landu egin genezake horratik. Besteek burdinolatan urtzen eta moldatzen duten burdina guk mailuz eta ingudez itxuratu behar dugu, baina itxuratzea behintzat gure eskutan dugu.

Ohar hainbat interesgarriagoak, gogoeta akademiko hutsak izan gabe, Gandiagak, praksian, poesia modu (hiri haunditar) berri bat enseiaterakoan, aurkitutako problemak isladatzen bait dizkigute.

Literaturak moderno eta kaletar izan behar zuela, eskatzen zuen hasiera hartatik *Ziutateaz* hontara, esate baterako, eboluzio handia dago, eta positiboa, literaturaren konzepzioan. Literaturaren konzientzihartzea heldutasun batetara ailegatu dela, esan daiteke. Orain, euskal gizartean eta kulturgintzan literaturari, literatura gisa, berez dagokion lekua irabazi nahi badu, zenbait jokabide agresibok, hamaika frustrazioren konpentsazio merkea eta dibertimendu infantil erraza bai, baina ez dirudi jokabide aproposena, literaturaren garai-penari laguntzeko. Ez bait da aski literatura bere buruaren konzientziara ailegatzea: euskal gizarteak ere ailegatu behar du, alfabetatzea edo euskara lantzea baino beste zerbait den literaturaren konzientziara.

Euskal liburuaren bipolaraketa

Orain, antizientifikoa omen da, Euskadi kolonia dela, esatea, gure politiko ezkertiarak, aspaldiko vulgaritateak superatzeko, berrikidanik berrinstituzen gaituztenez: kulturalki, halare, zifrek argi eta garbi hitzegiten dute, Hirugarren Mundu hutsa gara eta gure liburu produkzioaren estrukturak egoera kolonial garbi-garbia erakusten du, estatistikek ezer erakusten badute behintzat. Eta tendentziak geroz eta egoera kolonialagorantz markatzen du etorkizunerako.

Krisian, ez dago literatura, beste gutzia dago, —kalitate kontuan ez naiz sartzen. Euskarazko produkzioak bi kanpo bakarrik izatera jotzen du: hizkuntzalaritza eta literatura. Hutsunea, geroz haundia goa, euskarazko liburu kulturalan, «teknikoan», dago. Eta hori seinlatu beharra dago, aurreko urteotan, hain zuzen kanpo horixe in-

dartu nahiez, eginahalak egiten ibili bait gara. Etorkizunik ez duen kanpo batetan erre ote ditugu indarrak?... Estatistikek erakusten dutenez, Katalunian gauza bera ari da gertatzen: katalana literatura eta hizkuntzalaritza kanpoetan airoso dabil («hizkuntzalaritza», hemen ulertzen dugun adieran), liburu teknikoaren edo kulturalaren espazioa ordea, gaztelaniak inbaditzen du. Estatu hizkuntzaren presioak sortzen duen egoera koloniala, hizkuntza —hots, irakurketa— «util» den eremuetan.

Euskarak sofritzen duen zerkoa ez da batere bigundu. Bakarrik, atzo faxisten erdara zen eta gaur demokraten eta sozialisten eta abertzaleen erdara da. Euskara kultur tresna izan zedin ainbeste enpeinatu eta gero, bada, bide honetatik, gure euskarak, erremediatzen ez badugu, literatura egiteko balioko du, baina hizkuntza kultural gisa bere lekua hiztegietan edukiko du eta kito.

Egoera horretan literaturak berak ere marjinezioan jarraituko du, orain arte bezala, eta prozesoa nondik nora ibiliko den agerian dago: literatura «bellas letras» hutsetara mugatuko da, azkenean lirika hutsetara. Lehengora goaz berriro. Literaturan bertan, espansio baten ordeztan —nobelara, teatroa, saiorea, etab.— geroztan eta reduzio haundiagoa ikusiko dugu, «edukinik gabeko» literatur jeneroetara soil. Irten nahi genuen situazioa itzultzen gara. Orduan, baserri xuri ederren ordeztan, baserri eder xuriak kantatuko ditu euskal literaturak. Geroak esan beza, utziko dugu hori.

Nire beldur hau hobeto ulertuko da, liburuaren bipolarretan bertan literaturaren alde nola ageri den, ikusten badugu. Euskararen normalpenak, h.d., hizkuntzalaritzak, baditu gaur haren kultiborako tresnak: Euskaltzaindia eta UZEI, adibidez. Bergarako batzarreak erakutsi zuen, arazo hau lan zientifiko serio batek oinarriturik doala aurrera. UZEI-k, lehenengo aldiz, talde profesionalak biltzen ditu, espezialisten gidaritzapean sistematikoki lanean aritzeko, hiztegi gintzan bereberki, diziplina bakoitzeko lexikoa erabaki dadin. I. Sarasola literaturik dago, Hiztegi arau-emaile bat egiteko. Gero, UEU dago, EUTG honetakoxe Euskal Filologia dago, etab. Euskal Kontseilu Nagusiak baditu itzultzaileak, argot politiko-administratiboa euskaraz finkatzeko, etab.

Ez dugu ezer antzekorik —Akademiarik edo— literatur arloan (lehenahoz baziren deklamazio eskolak eta teatroan gutxienez), literaturaren kultiboa errazteko eta bultzatzeko. Hein honetan egiten den guztia, beharbada Unibertsitateak egiten ari diren apurra da. Baina mogimendu literari bati eragiteko eta eusteko zerbait gehiago behar litzateke. Literaturak diasporan jarraitzen du. Literatur dedika-

zioa, inongo laguntzarik gabe atera beharko du, gogo duenak. Eta orientaziorik ere ez dio inork emango, berak asmatu beharko du nondik nora jo. Literatura, geroz eta gehiago, «txoroen kontua» bilakatzen ari zaigu.

Euskararen normalpenak baditu bere esperimentazio eta zabal-kunde tresnak: Alfabetakuntza, ikastolak, aldizkariak —JAKIN, ZEHATZ, ELHUYAR; baina literaturak ez du ezer: literatur aldizkari bat ere ez duru.

Geroari begira, idazle berrien sorkuntza aseguratu beharra dago. Lehen, EUZKO GOGOIA, EGAN, JAKIN izaten ziren, idazle berriek beren esperimentuak hasteko tokia. Non hasi behar dute orain? POTT, USTELA eta horien inguruan egon da, nik uste, idazle berririk sortzeko habi bakarra azken urteotan. Esperimentu interesgarriak, duda gabe. Baina esperimentu eta esperimentaleku horiek muga gehiegi dute, edozein aldetatik begiratu. Hori baino plaza zabalagoa behar du euskal literatur mogimenduak, desarroilatuko bada.

Beraz, atzera begiratzen badugu, hastapenetan hizkuntza modernizatzea eta literatura modernizatzea batera planteatzen zirela, ikusten dugu: baina bi asmoak ez dira berdin desarroilatu. Hizkuntz dedikazioak indar haundia hartu du, literatur dedikazioak laguntza oso gutxi aurkitu du oraindik.

Literatur produkzioa ezin sekula organizatuko da UZEI-ko hiztegitzaren eran, ez dugu hori esan nahi. Baina literatur produkzioak ere izan ditzake bere tresnak, laguntzak: sariketak, editoriale subentzionatuak eta idazleen subentzionatzaileak, zuzen ala zeharka, etab. (UZEI subentzionaturik dago, Euskaltzaindiak ere aurkitu du subentzio modu edo bat. I. Sarasolak subentzionaturik lan egiten du bere hiztegian, etab.; Seminario Julio de Urquijo-k ateratzen zuen EGAN). Literatura subentziona litekeela, pentsatzea, harrigarri izan dakioke norbaiti. Baina Flanderen, Finlandian, etab., literatura subentzionatu egiten da. Aginpide propiorik duen edozein herri ttipi zibilizatutan apika.

Denok ikusten dugu, belaunaldi berri bat heldu dela euskal literaturan, forma berriekin, literaturaren konzepzio berriekin, narratiba berri batekin batez ere. Nik neuk, behintzat, ez dut ikusten literaturaren krisirik: alderantziz, nahiko indar eta gogo berri ikusten dut, eta nahiko imajinazio, nahiko dedikazio, estatistiketan ikusten dugun bipolariketa gabe ere, literaturaren etorkizunaz optimista izateko. Literaturan zebilen asko eta asko kulturagintzan galdu bada, hizkuntzalaritzak irunsi badu, jende berririk anitz agertu da, halare, literatura

egin nahiez eta literatura bakarrik, sekula baino literaturaren konzezio rigorosoagoz. Pena ematen du, ordea, belaunaldi berri hau bere esperimentuak *Z. Argia*-n, *Anaitasuna*-n, *Punto y Hora*-n egiten ikusteak, sakabanaturik, organo propio bat gabe.

Euskal literaturak denetik behar du, irakurgai errazetik *Sekulorun sekulotan* eta *Ene Jesus* izan daitezkeen «esperentzia narratibo»-etaraino. Euskal literaturak ez dauka liburu kulturala —saioa, etab.— gaztelaniari uzterik. Baina euskal literaturak, lehenbailehen eta batez ere, *aldizkari literari bat* behar du, dauden indarrak bideratzeko gutxienez, euskal literatura, gaztelaniaren presioak ez, baina desesperazioak, ito ez diezagun.